OHARRA: Kontratuko baldintzen arabera, AFAk bere gain hartzen duen gehieneko defizita, 2025rako, 250.428,43 €-koa da. Gehieneko muga hori honela handitu da: 192.631,68 € indartzeengatik; gehi 547.444,35 € BAT, BARIK eta MUGI bidezko ordainketen deskontuen (% 50, % 40) ondorioz jaso gabe geratutako dirubilketagatik; gehi 29.065,60 € adingabeen (12 urte, 15 urte) doakotasunaren ondoriozko diru sarreraren murrizketagatik; gehi 100.247,06 € 2023tik tarifak izozteari egotzi beharrekoak; gehi 645,44 € tarifak otsailera arte eguneratzeko atzerapenagatik.





MUGIKORTASUNAREN ASTEA AUTORIK GABEKO EUROPAKO EGUNA

Motor bidezko ibilgailuak zentzuz erabili beharrari eta beste garraiobide batzuk (esaterako oinez ibiltzea, edota bizikletak eta garraiobide publiko kolektiboak erabiltzea) erabiltzearen komenigarritasunari buruz herritarrak kontzientziatzen jarraitzeko, duela zenbait urtetik Mugikortasunaren Europako Astea ospatzen da Europar Batasuneko estatu kideetan. Hain zuzen ere, Mugikortasunaren Astea (irailaren 16tik 22ra) aurreikusitako jardunaldien azken egunean “Autorik gabeko Europako Eguna” ospatzen da, eta herritarrei autoa egun batez baztertzeko eta ingurumenarekiko errespetagarriagoak diren garraiobide berri jasangarriagoak probatzeko deia egiten zaie.

Hori dela eta, mugikortasunaren interesei eta politika estrategikoei dagokienez bidezko eta egokitzat jo zen irailaren 22an doako egitea eskualdeko garraio zerbitzu publikoak eta Alavabuseko hiriarteko linea erregularrak (C-01 Miranda/Vitoria-Gasteiz/Durango; AR-01 Araba Erdialdea; AR-02 Aiara eta AR-03 Arabako Errioxa), foru garraio publikoaren erabilera sustatzeko ibilgailu partikularren alternatiba gisa, Europako mugikortasun politikekin bat, herritarrei zerbitzu hori eta hura osatzen duten lineak ezagutarazteko, eta ohikoan erabiltzen dutenei aintzatespena egiteko.

Neurri hori Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren diputatuaren irailaren 8ko 391/2025 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Hauek dira bidaiarien datuak eta neurri horren kostuaren zenbatespena:

	BIDAIARIAK Mugikortasunaren eguna	Aukera-kostua bidaiari bakoitzeko	GUZTIRA
AR01	2.331		2.306,90
1 - Vitoria-Gasteiz / Zigoitia	161	0,78	125,06
2 - Vitoria-Gasteiz / Aramaio	43	0,88	37,80
3 - Aramaio / Arrasate-Mondragón	310	0,87	268,37
4 - Vitoria-Gasteiz / Narbaiza	66	0,90	59,68
5 - Vitoria-Gasteiz / Alegria-Dulantzi / Araia	1.011	0,97	983,56
6 - Vitoria-Gasteiz/ Sta.Cruz de Campezo / Estella-Lizarra	216	1,66	357,90
13 - Vitoria-Gasteiz / Nancles de la Oca / Boveda	524	0,91	474,52
AR02	1.728		2.221,77
14 - Vitoria-Gasteiz/Izarra	439	0,89	390,40
15 - Vitoria-Gasteiz / Amurrio / Llodio-Laudio	1.125	1,54	1.733,97
16 - Artziniega / Okondo	164	0,59	97,40
AR03	1.369		2.931,79
7 - Vitoria-Gasteiz/Ventas de Armentia-Bernedo-Lagrán	53	0,97	51,22
8 - Logroño-Oyón-Barriobusto-Laguardia	127	0,76	97,00
9 - Vitoria-Gasteiz / Logroño	797	2,74	2.185,76
10 - Logroño/Haro	105	1,22	127,73
11 - Logroño/Eskuernaga/Villabuena de Álava	46	1,14	52,44
12 - Vitoria-Gasteiz/Haro	241	1,73	417,63
C01	1.983		2.987,04
18 - Vitoria - Gasteiz / Durango	833	1,26	1.045,86
19 - Vitoria - Gasteiz / Miranda de Ebro	1.150	1,69	1.941,18
TC	227	0,78	176,15
TOTAL	7.638		10.623,65

Bestalde, Mugikortasun Jasangarriaren Sailak aitortza publikoa die euren eguneroko bizitzan foru garraio publikoa gehien erabiltzen duten arabarrei, Mugikortasunaren Europako Astearen harira antolatutako jarduera programaren barruan. Aitortza hori foru jauregian irailaren 19an egindako ekitaldi batean egin da; bertan, 2024an Alavabus eta Eskualdeko Garraio zerbitzuetan bidaia gehien egin zituzten hiru pertsonak saritu dira.

Sariak hauek izan dira: bizikleta tolesgarri bat bidaia gehien egin zituen pertsonarentzat; 90 euroko kargak dituzten bi BAT txartel (180 euro guztira) bigarren pertsonarentzat; eta 90 euroko karga duen BAT txartel bat hirugarrenarentzat.

Era berean, arabarren artean foru garraio publikoaren sistema ezagutaraztera bideratutako informazio kanpaina bat garatu da. Sistema horrek barne hartzen ditu nola Alavabuseko linea erregularrak (Gasteiz Kuadrillekin eta inguruko probintziekin lotzen dutenak), hala Eskualdeko Garraioa, landagune txikiak oinarrizko zerbitzuak biltzen dituzten eskualdeburuekin komunikatzen dituenak.

Kanpainaren barruan, 46.000 informazio eskuorri banatu dira Arabako etxe guztietan, Gasteizen izan ezik. «Zurekin linean» lelopean, material horrek informazio idatzia eta QR kodeak uztartzen zituen, lineen ibilbide eta ordutegiatarako sarbidea errazteko, bai eta tarifei, deskontu progresiboko sistemari eta txartelen online erosketara eta erreserbari buruzko informazioa ere.

Gainera, eskuorriak beste zerbitzu batzuei buruzko informazio baliagarria jasotzen zuen, hala nola emakumeentzako eta adingabeentzako eskariko gaueko geraldak, webgunean eta aplikazio mugikorrean eskuragarri dagoen bidaia planifikatzailea, eta erabiltzaileei arreta emateko kanalak (telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak).

Ekintza hori osatzeko, Gasteizko Autobus Geltokian eskuorri hori, iman bat eta «Ezagutu Araba garraio publikoan» argitalpena jasotzen zituzten poltsa berrerabilgarriak banatu dira, bai Alavabuseko erabiltzaileen artean, bai beste zerbitzu batzuetako erabiltzaileen artean.

Azkenik, programaren barruan, eskola umeen artean ibilbide laburretan bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzera bideratutako proiektu pilotu bat garatu da. Ekimen hori irailetik urrira bitartean egin da Arabako Lurralde Historikoko 11 ikastetxetan, honako herri hauetan kokatuta: Amurrio, Agurain, Alegría-Dulantzi, Iruña Oka, Laguardia, Oion, Kanpezu, Murgia, Zuia eta Erriberabeitia.

DIRUZ LAGUNDUTAKO LINEAK: LABURPENA

DATU EKONOMIKOAK

LINEA	EGINDAKO KM	KOSTUA	BILKETA (BEZ barne)	DEFIZITA	ESTALDURA TASA	BIDAIARIAK	DEFIZITA / BIDAIARIKO €	BIDAIARIAK EGUNEAN	BILKETA BIDAIARIKO
AR01 ARABA ERDIALDEA	1.213.602,20	1.494.232,02	626.038,77	925.105,87	38,09%	330.700	2,80	906,03	1,89
AR02 AIARA	873.732,10	1.247.947,70	600.377,89	702.149,62	43,74%	256.528	2,74	702,82	2,34
AR03 ARABAKO ERRIOXA	1.359.560,70	1.718.657,56	962.125,87	843.997,68	50,89%	298.931	2,82	818,99	3,22
C01 MIRANDA- VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	700.664,50	969.693,62	786.087,16	255.068,93	73,70%	260.476	0,98	713,63	3,02
Guztira 2019	4.147.559,50	5.430.530,90	2.974.629,69	2.726.322,09	49,80%	1.146.635	2,38	3.141,47	2,59

LINEA	EGINDAKO KM	KOSTUA	BILKETA (BEZ barne)	DEFIZITA	ESTALDURA TASA	BIDAIARIAK	DEFIZITA / BIDAIARIKO €	BIDAIARIAK EGUNEAN	BILKETA BIDAIARIKO
AR01 ARABA ERDIALDEA	1.237.127,10	1.611.976,61	540.385,19	1.120.717,35	% 30,48	337.960	3,32	925,92	1,60
AR02 AIARA	882.805,20	1.334.801,46	538.324,10	845.415,92	% 36,66	279.097	3,03	764,65	1,93
AR03 ARABAKO ERRIOXA	1.395.030,10	1.863.760,21	843.545,74	1.096.900,45	% 41,15	301.032	3,64	824,75	2,80
C01 MIRANDA- VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	722.828,20	1.110.264,12	749.721,40	428.699,21	% 61,39	306.117	1,40	838,68	2,45
Guztira 2022	4.237.790,60	5.920.802,40	2.671.976,43	3.491.732,92	% 41,03	1.224.206	2,85	3.353,99	2,18

LINEA	EGINDAKO KM	KOSTUA	BILKETA (BEZ barne)	DEFIZITA	ESTALDURA TASA	BIDAIARIAK	DEFIZITA / BIDAIARIKO €	BIDAIARIAK EGUNEAN	BILKETA BIDAIARIKO
AR01 ARABA ERDIALDEA	1.355.059,20	2.034.681,46	457.425,24	1.618.840,33	% 20,44	427.659	3,79	1171,67	1,07
AR02 AIARA	943.032,60	1.541.527,73	448.735,86	1.133.586,04	% 26,46	350.372	3,24	959,92	1,28
AR03 ARABAKO ERRIOXA	1.566.419,20	2.254.077,23	805.330,64	1.521.958,47	% 32,48	372.921	4,08	1021,70	2,16
C01 MIRANDA- VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	766.270,50	1.202.557,17	658.996,06	603.469,85	% 49,82	399.177	1,51	1093,64	1,65
Guztira 2023	4.630.781,50	7.032.843,58	2.370.487,80	4.877.854,68	% 30,64	1.550.129	3,15	4.246,93	1,53

LINEA	EGINDAKO KM	KOSTUA	BILKETA (BEZ barne)	DEFIZITA	ESTALDURA TASA	BIDAIARIAK	DEFIZITA / BIDAIARIKO €	BIDAIARIAK EGUNEAN	BILKETA BIDAIARIKO
AR01 ARABA ERDIALDEA	1.460.057,80	2.244.276,66	624.626,77	1.676.434,14	% 25,30	591.092,00	2,84	1.619,43	1,06
AR02 AIARA	1.047.166,69	1.759.460,77	492.793,20	1.311.466,95	% 25,46	390.157,00	3,36	1.068,92	1,26
AR03 ARABAKO ERRIOXA	1.581.280,60	2.642.319,88	987.026,78	1.745.022,81	% 33,96	473.735,00	3,68	1.297,90	2,08
C01 MIRANDA- VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	827.169,50	1.306.191,00	728.585,70	643.840,36	% 50,71	443.846,00	1,45	1.216,02	1,64
Guztira 2024	4.987.348,19	7.837.692,73	2.713.758,87	5.370.639,22	% 31,48	1.832.742	2,93	5.021,21	1,48

LINEA	EGINDAKO KM	KOSTUA	BILKETA (BEZ barne)	DEFIZITA	ESTALDURA TASA	BIDAIARIAK	DEFIZITA / BIDAIARIKO €	BIDAIARIAK EGUNEAN	BILKETA BIDAIARIKO
AR01 ARABA ERDIALDEA	1.492.066,40	2.361.207,97	688.272,53	1.735.505,67	% 26,50	657.887,00	2,64	1.802,43	1,05
AR02 AIARA	1.133.989,20	1.962.935,31	569.253,38	1.445.432,24	% 26,36	443.692,00	3,26	1.215,59	1,28
AR03 ARABAKO ERRIOXA	1.652.954,20	2.527.764,31	867.753,20	1.738.897,76	% 31,21	407.647,00	4,27	1.116,84	2,13
C01 MIRANDA- VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	827.151,80	1.306.072,69	775.090,51	605.446,85	% 53,95	495.457,00	1,22	1.357,42	1,56
Guztira 2025	5.106.161,60	8.157.980,27	2.900.369,61	5.525.282,52	% 32,32	2.004.683	2,76	5.492,28	1,45
% aldakuntza 25-24	2,38%	4,09%	6,88%	2,88%	2,68%	9,38%	-5,94%	9,38%	-2,29%
% aldakuntza 25-19	23,11%	50,22%	-2,50%	102,66%	-35,09%	74,83%	15,92%	0,75	-44,23%

DATUAK TITULUKA

LINEA	BAT	DOHAINIK	NOIZBEHINKAKOA
AR01 ARABA ERDIALDEA	% 61,92	% 1,48	% 36,60
AR02 AIARA	% 74,19	% 1,29	% 24,52
AR03 ARABAKO ERRIOXA	% 41,84	% 1,74	% 56,42
C01 MIRANDA-VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	% 56,19	% 1,02	% 42,79
Guztira 2019	% 59,00	% 1,51	% 39,49

LINEA	BAT	DOHAINIK	NOIZBEHINKAKOA	BARIK-MUGI
AR01 ARABA ERDIALDEA	% 70,37	% 1,10	% 17,93	% 10,60
AR02 AIARA	% 63,50	% 1,55	% 12,99	% 21,97
AR03 ARABAKO ERRIOXA	% 57,14	% 1,54	% 38,84	% 2,48
C01 MIRANDA-VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	% 59,19	% 1,46	% 25,02	% 14,33
Guztira 2022	% 62,75	% 1,40	% 23,72	% 12,13

LINEA	BAT	DOHAINIK	NOIZBEHINKAKOA	BARIK-MUGI
AR01 ARABA ERDIALDEA	% 75,43	% 1,16	% 9,46	% 13,95
AR02 AIARA	% 66,86	% 1,73	% 6,21	% 25,20
AR03 ARABAKO ERRIOXA	% 67,65	% 1,81	% 26,53	% 4,00
C01 MIRANDA-VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	% 69,62	% 1,34	% 13,47	% 15,56
Guztira 2023	% 70,13	% 1,49	% 13,87	% 14,52

LINEA	BAT	DOHAINIK	NOIZBEHINKAKOA	BARIK-MUGI
AR01 ARABA ERDIALDEA	% 78,27	% 0,95	% 7,46	% 13,33
AR02 AIARA	% 73,13	% 1,40	% 5,03	% 20,43
AR03 ARABAKO ERRIOXA	% 71,02	% 1,86	% 22,87	% 4,24
C01 MIRANDA-VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	% 75,44	% 1,13	% 10,98	% 12,45
Guztira 2024	% 74,88	% 1,29	% 11,22	% 12,60

LINEA	BAT	DOHAINIK	NOIZBEHINKAKOA	BARIK-MUGI
AR01 ARABA ERDIALDEA	78,17%	1,30%	5,72%	14,81%
AR02 AIARA	72,23%	1,86%	4,80%	21,11%
AR03 ARABAKO ERRIOXA	72,97%	2,49%	20,20%	4,34%
C01 MIRANDA-VITORIA/GASTEIZ-DURANGO	75,98%	1,91%	9,15%	12,96%
Guztira 2025	75,18%	1,84%	9,66%	13,32%


C-02 BILBO - LOGROÑO

AURREKARIAK

JARDUERA	EBAZPENA
AURREPROIEKTUA ONESTEA	70/2014 Erabakia, otsailaren 18koa
PROIEKTUA ONESTEA	626/2014 Erabakia, azaroaren 18koa
LIZITAZIOA ONESTEA	169/2015 Erabakia, maiatzaren 31koa
ADJUDIKAZIOA ONESTEA	467/2016 Erabakia, uztailaren 19koa
KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	2017ko martxoaren 2a
ZERBITZUA HASTEA	2017ko maiatzaren 8a
ADJUDIKAZIODUNA	AUTOBUSES CUADRA, S.A.
TARIFA BIDAIAKIA KM-KO KONTRATUA	0,062982 €
TARIFA BIDAIAKIA KM-KO EGUNERATUA	0,074289 €

BIDAIAKIAK DATUAK

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
2019	13.943	14.161	17.611	18.941	17.654	20.689	23.165	26.476	22.721	20.302	17.154	19.149	231.966
2022	10.298	11.977	14.270	17.308	16.723	19.939	24.747	26.366	21.647	19.667	17.020	18.793	218.755
2023	15.762	15.745	18.586	21.846	19.526	22.277	26.208	28.763	23.285	22.627	18.906	21.399	254.930
2024	17.293	17.794	21.359	21.999	20.678	22.690	26.155	30.105	23.784	21.825	20.193	21.967	265.842
2025	19.024	18.999	21.601	23.610	22.291	24.406	27.012	31.674	25.692	23.447	21.622	22.134	281.512
% aldakuntza 25-54	% 10,01	% 6,77	% 1,13	% 7,32	% 7,80	% 7,56	% 3,28	% 5,21	% 8,02	% 7,43	% 7,08	% 0,76	% 5,89
% aldakuntza 25-19	% 36,44	% 34,16	% 22,66	% 24,65	% 26,27	% 17,97	% 16,61	% 19,63	% 13,08	% 15,49	% 26,05	% 15,59	% 21,36



C-03 BILBO-IRUÑEA


AURREKARIAK

C-03 Bilbo-Iruñea bidaiariak errepide bidez garraiatzeko herri arteko erabilera orokorreko garraio publiko erregularren zerbitzuen emakida 2023ko uztailaren 5ean abiarazi zen. Kontratu berriaren bidez, hobekuntza handiak egin ziren ibilgailuen, prezioen eta maiztasunen arloan. Hartara, lineak bidaia gehiago ditu, bai lan egunetan bai asteburuetan, bai eta autobus berri erosoagoak eta efizienteagoak, txartel arruntaren prezioa % 44 txikiagoa eta BAT txartelaren bidezko deskontu gehigarriak ere. Gainera, 2024an, Bat txartela pertsonalizatuaren bidezko tarteen araberako deskontu progresiboak gehitu ziren, baita ezohiko eta aldi baterako deskontuak ere.

JARDUKETA	EBAZPENA
LIZITAZIOA ONESTEA	659/2021 Erabakia, azaroaren 2koa
ADJUDIKAZIOA ONESTEA	41/2023 Erabakia, otsailaren 7koa
KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	2023ko ekainaren 5a
ZERBITZUA HASTEA	2023ko uztailaren 5a
ADJUDIKAZIODUNA	AUTOBUSES CUADRA SA
TARIFA BERRIA BIDAIRIENTZAT KM BAKOITZEKO (BEZa Barne)	0,056154 €/km

BIDAARIEN DATUAK

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
2019	12.238	12.002	14.694	13.469	14.371	14.252	23.761	14.281	14.783	15.258	14.638	14.130	177.877
2022	9.334	10.506	12.779	12.261	12.855	15.944	22.575	14.846	15.077	14.843	13.452	14.127	168.599
2023	12.207	12.892	14.090	14.619	14.125	15.281	24.243	14.811	16.451	19.084	16.758	17.502	192.063
2024	15.908	16.870	18.791	19.110	18.461	18.516	32.305	18.298	19.684	20.645	20.471	21.667	240.726
2025	18.611	18.044	21.492	20.582	20.340	19.781	34.724	19.186	19.994	21.631	20.775	20.403	255.563
% aldakuntza 25-24	% 16,99	% 6,96	% 14,37	% 7,70	% 10,18	% 6,83	% 7,49	% 4,85	% 1,57	% 4,78	% 1,49	-% 5,83	% 6,16
% aldakuntza 25-19	% 52,08	% 50,34	% 46,26	% 52,81	% 41,54	% 38,79	% 46,14	% 34,35	% 35,25	% 41,77	% 41,93	% 44,39	% 43,67



ESKUALDEKO GARRAIO ZERBITZUA

Eskualdeko garraio zerbitzua 2019ko uztailaren 1ean jarri zen abian, Arabako landagune txikiak eskualdeko buruekin lotzen dituen zerbitzu publiko gisa, beste garraiobide publiko eta zerbitzu batzuetarako sarbidea errazteko (garraioa, osasuna, hezkuntza, kirol instalazioak, merkataritza, udal administrazioa, eta abar).

Hauek dira zerbitzuaren ezaugarri nagusiak:

- Eskualdeko garraio zerbitzuak balio du bidaiariak foru titulartasuneko linea erregularretara edo haietatik bizilekura hurbiltzeko, baina ez horretarako bakarrik: aurrez ezarritako ordutegien barruan, erreferentzia guneetara joateko ere erabil daitezke, edozein kudeaketa egiteko: administrazioa, ikastetxea edo lana, aisialdia eta abar.
- Zerbitzua urteko egun guztietan ematen da (abenduarien 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik), ordutegi eta ibilbide jakin batzuetan, zona bakoitzeko.
- Zerbitzuak erreserba sistema zentralizatu bat du, eta haren bidez, erabiltzaileek aurreko eguneko 20:00ak arte erreserbatu dezakete txartela, 945 182 060 telefono zenbakira deituta (astelehenetik igandera, 07:30etik 22:00etara) edo www.alavabus.eus webgunearen edo Alavabus app-aren bidez.
- Erabiltzaileentzako tarifei hobaria ematen zaie BAT, Barik eta Mugi txartelak erabiltzeagatik. Gainera, 2025ean zehar deskontu gehigarriak aplikatu dira: % 50eko murrizketa lehen seihilekoan eta % 40koa bigarrenetan.
Bestalde, BAT txartel pertsonalizatuari lotutako deskontu progresiboko sistemari esker, foru garraio publikoa maiztasun handiagoz erabiltzen dutenek aurrezpen handiagoa lortu dute. Sistema horrek deskontu gehigarriak aplikatzen ditu hilero egindako bidaia kopuruaren arabera.

Eskualdeko Garraio Zerbitzua pixkanaka hedatu da, eta, gaur egun, 29 linea ditu, 22 sortatan banatuta lurraldeko eskualdeetan. Hona hemen xehetasunak:

SORTA	ESKUALDEA	ADJUDIKAZIOAREN EBAZPENA
1	Artziniega	Hutsik
2	Amurrio-Arespalditza	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
3	Amurrio-Urduña	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
4	Aramaio	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
5	Izarra Murgia	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
6	Legutio	143/2023 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa
7	Dulantzi	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
8	Agurain	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
9	Araia	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
10	Kuartango	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
11	Espejo-Uribarri Gaubea	511/2024 Erabakia, urriaren 3koa
12	Pobes	692/2024 Erabakia, abenduaren 30koa
13	Iruña Oka	559/2024 Erabakia, azaroaren 4koa
14	Miranda de Ebro	193/2025 Erabakia, apirilaren 14koa
15	Argantzón	194/2025 Erabakia, apirilaren 14koa
16	Trebiñu Ekialdea	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
17	Trebiñu Mendebaldea	260/2023 Foru Agindua, maiatzaren 26koa
18	Maztu	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
19	Kanpezu	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
20	Urizaharra	336/2022 Erabakia, ekainaren 7koa
21	Bernedo	133/2025 Erabakia, martxoaren 25ekoa eta 220/2025 Erabakia, maiatzaren 9koa
22	Guardia	58/2025 Erabakia, azaroaren 11koa


Artziniegako 1. eremua estaltzeko, apirilaren 18ko 164/2023 Foru Aginduaren bidez, “Artziniega inguruko bidaiariak hurbiltzeko zerbitzua” onetsi zen, maiatzaren 22ko 231/2023 Foru Aginduaren bidez adjudikatua eta 2023ko maiatzaren 23an abian jarria, urtebeteko eperako. Maiatzaren 10eko 265/2024 Foru Aginduaren bidez, kontratua urtebetez luzatu zen, 2024ko maiatzaren 23tik 2025eko maiatzaren 22ra arte. Maiatzaren 21eko 232/2025 Foru Aginduaren bidez, kontratu berri bat adjudikatu zen zonan zerbitzua emateko, 2025eko maiatzaren 23tik aurrera, urtebeteko eperako.

Azkenik, erabiltzaileen mugikortasun premiei erantzuteko, Arabako Okina herritik/herrirantz (kokapenagatik ez da sartzen aipatutako eskualdeko garraio eremuetako batean ere), 2025 osorako "Bidaiariak Okina ingurutik Gasteizera hurbiltzeko zerbitzua, bi noranzkoetan" zerbitzua adjudikatu zen azaroaren 26ko 602/2024 Foru Aginduaren bidez.

Ekitaldi honetan, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak Eskualdeko Garraio zerbitzuak berritzeko baldintza agiriari egiteko lanak egin ditu. Prozesua amaitzeko, abenduaren 30eko 834/2025 Erabakiaren bidez onetsi da “Arabako Lurralde Historikoan pertsona bidaiariaren eskualdeko garraio zerbitzua. 1etik 25erako loteak”, eta hori 2026ko ekitaldian zehar ezartzea aurreikusten da.

IBILBIDEEN DATUAK

IBILBIDEAK	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
2019	1.795	1.823	1.838	1.540	1.908	1.624	1.665	1.444	1.805	2.119	2.015	1.839	21.415
2022	2.968	3.171	3.671	2.897	3.479	3.305	2.993	3.141	3.490	4.083	4.005	3.526	40.729
2023	3.711	3.907	4.400	3.589	4.125	4.027	4.031	3.678	4.028	4.480	4.505	3.706	48.187
2024	4.518	4.749	4.825	4.614	5.184	4.825	4.872	4.426	5.006	5.600	5.179	4.336	58.134
2025	4.654	4.628	5.192	4.620	5.291	5.037	5.125	4.535	5.532	6.181	5.432	5.109	61.336
% aldakuntza 25-24	% 3,01	-% 2,55	% 7,61	% 0,13	% 2,06	% 4,39	% 5,19	% 2,46	% 10,51	% 10,38	% 4,89	% 17,83	% 5,51
% aldakuntza 25-19	% 159,28	% 153,87	% 182,48	% 200,00	% 177,31	% 210,16	% 207,81	% 214,06	% 206,48	% 191,69	% 169,58	% 177,81	% 186,42




ZONALDEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
LOTE 2 - Amurrio - Arrespaldiza (+ Artziniega)	128	163	173	143	192	157	97	59	127	179	117	125	1.660
LOTE 3 - Amurrio-Orduña	136	135	122	100	122	98	110	76	211	263	191	150	1.714
LOTE 4 - Aramaio	18	12	23	14	21	14	16	8	12	22	19	9	188
LOTE 5 - Izarra - Murgia	354	303	333	277	356	327	266	225	325	333	296	307	3.702
LOTE 6 - Legutio	182	173	195	145	203	180	169	153	212	237	171	160	2.180
LOTE 7 - Dulantzi/Alegría	25	33	18	86	134	111	126	90	170	193	192	174	1.352
LOTE 8 - Agurain/Salvatierra	115	82	125	126	119	118	164	90	161	193	162	163	1.618
LOTE 9 - Araia	90	98	104	68	103	78	84	65	110	137	145	129	1.211
LOTE 10 - Kuartango	370	353	393	319	400	346	398	377	404	441	394	344	4.539
LOTE 11 - Espejo - Villanueva de Valdegovia	523	615	709	653	743	736	793	773	764	810	727	732	8.578
LOTE 12 - Pobes	307	309	317	277	331	304	315	345	338	355	342	328	3.868
LOTE 13 - Iruña Oka	236	250	298	256	253	223	217	254	239	247	255	256	2.984
LOTE 14 - Miranda de Ebro	341	325	339	312	394	390	453	430	455	477	423	404	4.743
LOTE 15 - La Puebla de Arganzón	416	410	456	373	417	406	418	357	415	456	395	372	4.891
LOTE 16 (+ Okina) - Treviño Este	271	268	314	310	315	273	295	267	307	351	274	254	3.499
LOTE 17 - Treviño Oeste	334	315	342	330	369	393	412	336	379	421	343	332	4.306
LOTE 18 - Maeztu - Maestu	49	51	30	36	28	56	16	31	68	68	75	58	566
LOTE 19 - Kanpezu	111	101	131	113	130	120	157	112	162	172	139	126	1.574
LOTE 20 - Urizaharra/Peñacerrada	172	170	195	154	157	164	126	116	179	225	250	201	2.109
LOTE 21 - Bernedo	109	54	121	169	102	78	107	41	114	144	138	115	1.292
LOTE 22 - Guardia/Laguardia	367	408	454	359	402	465	386	330	380	457	384	370	4.762
GUZTIRA	4.654	4.628	5.192	4.620	5.291	5.037	5.125	4.535	5.532	6.181	5.432	5.109	61.336


BIDAIARIEN DATUAK

BIDAIARIAK	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
2019	2.420	2.452	2.409	2.017	2.411	2.153	2.318	2.075	2.699	3.152	2.959	2.589	29.654
2022	3.937	4.543	5.207	3.961	4.837	4.569	4.369	4.682	5.231	6.187	6.092	5.183	58.798
2023	5.347	5.665	6.430	5.092	6.020	5.946	6.489	5.487	6.337	7.196	7.166	5.834	73.009
2024	7.183	7.634	7.833	7.499	8.432	7.764	8.189	7.351	8.430	9.850	9.161	7.024	96.350
2025	7.576	7.717	8.437	7.427	8.680	8.553	9.233	8.261	9.973	10.777	9.982	8.954	105.570
% aldakuntza 25-24	% 5,47	% 1,09	% 7,71	-% 0,96	% 2,94	% 10,16	% 12,75	% 12,38	% 18,30	% 9,41	% 8,96	% 27,48	% 9,57
% aldakuntza 25-19	% 213,06	% 214,72	% 250,23	% 268,22	% 260,02	% 297,26	% 298,32	% 298,12	% 269,51	% 241,91	% 237,34	% 245,85	% 256,01

ESKUALDEKO GARRAIOA Bidaia-rik/hilean guztira




ZONALDEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
LOTE 2 Amurrio - Arrespaldiza (+ Artziniega)	179	218	237	154	210	196	109	65	151	210	129	141	1.999
LOTE 3 - Amurrio-Orduña	210	232	159	135	134	118	132	84	286	375	302	215	2.382
LOTE 4 - Aramaio	18	12	23	14	22	14	16	8	12	22	20	10	191
LOTE 5 - Izarra - Murgia	441	388	393	351	423	421	341	284	423	460	396	395	4.716
LOTE 6 - Legutio	250	223	270	190	276	284	285	262	394	396	260	265	3.355
LOTE 7 - Dulantzi/Alegría	25	35	18	106	186	131	160	106	323	362	434	367	2.253
LOTE 8 - Agurain/Salvatierra	136	124	157	168	145	158	259	134	218	243	202	202	2.146
LOTE 9 - Araia	107	123	122	79	121	88	103	86	138	177	180	152	1.476
LOTE 10 - Kuartango	654	613	646	543	724	590	678	709	951	1046	930	744	8.828
LOTE 11 - Espejo - Villanueva de Valdegovía	839	1045	1148	1072	1160	1246	1685	1615	1360	1483	1318	1329	15.300
LOTE 12 - Pobes	800	899	867	729	936	791	813	875	796	909	851	731	9.997
LOTE 13 - Iruña Oka	452	433	594	503	495	439	505	570	530	445	628	575	6.169
LOTE 14 - Miranda de Ebro	613	604	714	652	830	836	1145	966	976	925	788	748	9.797
LOTE 15 - La Puebla de Arganzón	574	563	623	490	609	650	643	429	724	694	600	536	7.135
LOTE 16 (+ Okina) - Treviño Este	361	364	452	444	445	384	395	441	568	567	464	389	5.274
LOTE 17 - Treviño Oeste	678	636	646	621	769	919	877	686	760	888	840	745	9.065
LOTE 18 - Maeztu - Maestu	51	65	39	47	30	67	22	48	87	80	96	67	699
LOTE 19 - Kanpezu	141	125	166	147	161	157	202	152	214	213	185	164	2.027
LOTE 20 - Urizaharra/Peñacerrada	290	288	355	229	245	263	190	164	285	359	556	440	3.664
LOTE 21 - Bernedo	201	102	185	218	182	106	125	66	167	236	242	221	2.051
LOTE 22 - Guardia/Laguardia	556	625	623	535	577	695	548	511	610	687	561	518	7.046
GUZTIRA	7.576	7.717	8.437	7.427	8.680	8.553	9.233	8.261	9.973	10.777	9.982	8.954	105.570



ZONALDEA	Traiektuak	Bidaiaariak	Bidaiaariak traiektuko
LOTE 2 Amurrio - Arrespaldiza (+ Artziniega)	1.660	1.999	1,20
LOTE 3 - Amurrio-Orduña	1.714	2.382	1,39
LOTE 4 - Aramaio	188	191	1,02
LOTE 5 - Izarra - Murgia	3.702	4.716	1,27
LOTE 6 - Legutio	2.180	3.355	1,54
LOTE 7 - Dulantzi/Alegría	1.352	2.253	1,67
LOTE 8 - Agurain/Salvatierra	1.618	2.146	1,33
LOTE 9 - Araia	1.211	1.476	1,22
LOTE 10 - Kuartango	4.539	8.828	1,94
LOTE 11 - Espejo - Villanueva de Valdegovía	8.578	15.300	1,78
LOTE 12 - Pobes	3.868	9.997	2,58
LOTE 13 - Iruña Oka	2.984	6.169	2,07
LOTE 14 - Miranda de Ebro	4.743	9.797	2,07
LOTE 15 - La Puebla de Arganzón	4.891	7.135	1,46
LOTE 16 (+ Okina) - Treviño Este	3.499	5.274	1,51
LOTE 17 - Treviño Oeste	4.306	9.065	2,11
LOTE 18 - Maeztu - Maestu	566	699	1,23
LOTE 19 - Kanpezu	1.574	2.027	1,29
LOTE 20 - Urizaharra/Peñacerrada	2.109	3.664	1,74
LOTE 21 - Bernedo	1.292	2.051	1,59
LOTE 22 - Guardia/Laguardia	4.762	7.046	1,48
GUZTIRA	61.336	105.570	1,72

ESKUALDEKO GARRAIOA

Zona bakoitzeko bidaiariak batez beste, traiektuko, 2025an



KOSTUEN DATUAK

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
2019	44.818	45.325	45.862	39.442	46.678	41.712	32.333	29.762	35.085	39.218	38.337	35.530	474.101
2022	60.765	64.238	72.091	59.201	69.443	65.447	62.470	64.584	71.617	82.264	81.493	72.669	826.283
2023	75.377	80.406	89.481	74.486	84.541	82.276	82.705	74.425	80.460	89.363	89.933	76.706	980.159
2024	90.941	94.031	95.514	93.396	100.887	96.250	95.577	89.080	100.638	111.608	103.911	87.880	1.159.712
2025	91.002	92.532	102.056	93.508	93.064	100.613	98.522	71.953	111.240	120.871	109.603	103.162	1.188.127
% aldakuntza 25-24	% 0,07	-% 1,59	% 6,85	% 0,12	-% 7,75	% 4,53	% 3,08	-% 19,23	% 10,53	% 8,30	% 5,48	% 17,39	% 2,45
% aldakuntza 25-19	% 103,05	% 104,15	% 122,53	% 137,08	% 99,37	% 141,21	% 204,71	% 141,77	% 217,06	% 208,20	% 185,90	% 190,35	% 150,61

ZONALDEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
LOTE 2 Amurrio - Arrespaldiza (+ Artziniega)	3.141	4.063	4.313	3.607	4.655	4.018	2.634	1.602	3.189	4.088	2.959	3.108	41.378
LOTE 3 - Amurrio-Orduña	2.292	3.396	2.907	2.461	2.677	2.274	2.562	1.973	4.809	5.410	4.348	3.507	38.614
LOTE 4 - Aramaio	832	753	895	780	871	780	806	703	754	883	845	716	9.617
LOTE 5 - Izarra - Murgia	6.142	5.587	5.877	4.995	5.935	5.664	4.887	4.319	5.966	5.858	5.333	5.448	66.011
LOTE 6 - Legutio	3.553	3.460	3.763	3.039	3.889	3.633	3.440	3.255	4.151	4.589	3.694	3.373	43.839
LOTE 7 - Dulantzi/Alegría	932	1.053	835	2.006	2.838	2.447	2.695	2.020	3.682	3.856	3.094	3.661	29.120
LOTE 8 - Agurain/Salvatierra	2.562	2.035	2.761	2.871	2.665	2.692	3.655	2.162	3.479	3.953	3.457	3.384	35.678
LOTE 9 - Araia	2.047	2.166	2.256	1.648	2.234	1.816	1.900	1.579	2.311	2.811	2.977	2.680	26.424
LOTE 10 - Kuartango	6.959	6.612	6.983	6.074	7.433	6.303	6.933	6.905	8.146	8.612	7.845	6.888	85.694
LOTE 11 - Espejo - Villanueva de Valdegovía	9.537	11.669	13.900	12.915	14.466	14.389	15.719	3.527	15.676	16.489	14.940	15.038	158.265
LOTE 12 - Pobes	7.215	7.410	7.389	6.835	7.956	6.990	7.185	7.730	7.354	8.093	7.816	7.235	89.209
LOTE 13 - Iruña Oka	3.990	4.126	4.844	4.411	4.242	4.016	3.450	4.444	4.147	4.125	4.502	4.357	50.655
LOTE 14 - Miranda de Ebro	6.158	5.846	6.764	6.200	2.992	8.532	9.666	4.630	9.199	9.439	8.457	8.000	85.882
LOTE 15 - La Puebla de Arganzón	6.228	6.086	6.734	5.656	1.364	6.008	5.366	5.267	6.391	6.885	6.169	5.722	67.876
LOTE 16 (+ Okina) - Treviño Este	6.116	5.928	6.894	6.912	7.115	6.021	6.310	5.949	6.934	7.268	5.986	5.482	76.916
LOTE 17 - Treviño Oeste	5.735	5.495	5.602	5.577	5.997	6.522	6.496	2.091	6.272	7.293	6.356	5.968	69.403
LOTE 18 - Maetzu - Maestu	1.242	1.353	1.064	1.116	976	1.334	861	1.047	1.517	1.483	1.590	1.402	14.983
LOTE 19 - Kanpezu	2.560	2.361	2.867	2.575	2.920	2.808	3.393	2.583	3.438	3.627	3.138	2.739	35.008
LOTE 20 - Urizaharra/Peñacerrada	3.684	3.704	4.193	3.559	3.515	3.662	2.829	2.656	3.849	4.438	5.457	4.499	46.043
LOTE 21 - Bernaldo	3.256	1.969	3.612	3.777	890	2.490	3.214	1.423	3.134	3.880	3.946	3.413	35.005
LOTE 22 - Guardia/Laguardia	6.820	7.459	7.601	6.493	7.436	8.216	4.522	6.086	6.845	7.791	6.695	6.542	82.507
GUZTIRA	91.002	92.532	102.056	93.508	93.064	100.613	98.522	71.953	111.240	120.871	109.603	103.162	1.188.127

DATU EKONOMIKOEN LABURPENA

ZONALDEA	KOSTUA	DIRU SARREARK (BEZ barne)	ESTALDURA TASA	BIDAIARIAK	TRAIEKTUAK	BIDAIARIAK/ TRAIEKTUKO	KOSTUA/ BIDAIARIKO (€)	BIDAIARIAK / HILEAN
LOTE 2 Amurrio - Arrespaldiza (+ Artziniega)	41.378,43	2.318,27	% 5,60	1.999	1.660	1,20	20,70	167
LOTE 3 - Amurrio-Orduña	38.614,29	1.514,43	% 3,92	2.382	1.714	1,39	16,21	199
LOTE 4 - Aramaio	9.617,05	187,64	% 1,95	191	188	1,02	50,35	16
LOTE 5 - Izarra - Murgia	66.011,01	3.483,36	% 5,28	4.716	3.702	1,27	14,00	393
LOTE 6 - Legutio	43.839,26	2.189,15	% 4,99	3.355	2.180	1,54	13,07	280
LOTE 7 - Dulantzi/Alegría	29.120,13	670,48	% 2,30	2.253	1.352	1,67	12,93	188
LOTE 8 - Agurain/Salvatierra	35.677,52	830,22	% 2,33	2.146	1.618	1,33	16,63	179
LOTE 9 - Araia	26.424,40	675,42	% 2,56	1.476	1.211	1,22	17,90	123
LOTE 10 - Kuartango	85.693,54	7.024,05	% 8,20	8.828	4.539	1,94	9,71	736
LOTE 11 - Espejo - Villanueva de Valdegovía	158.264,92	14.009,98	% 8,85	15.300	8.578	1,78	10,34	1275
LOTE 12 - Pobes	89.208,71	8.556,44	% 9,59	9.997	3.868	2,58	8,92	833
LOTE 13 - Iruña Oka	50.654,78	5.797,74	% 11,45	6.169	2.984	2,07	8,21	514
LOTE 14 - Miranda de Ebro	85.882,02	8.575,33	% 9,99	9.797	4.743	2,07	8,77	816
LOTE 15 - La Puebla de Arganzón	67.875,72	6.242,30	% 9,20	7.135	4.891	1,46	9,51	595
LOTE 16 (+ Okina) - Treviño Este	76.915,56	3.170,05	% 4,12	5.274	3.499	1,51	14,58	440
LOTE 17 - Treviño Oeste	69.402,73	7.221,19	% 10,40	9.065	4.306	2,11	7,66	755
LOTE 18 - Maeztu - Maestu	14.983,15	648,75	% 4,33	699	566	1,23	21,44	58
LOTE 19 - Kanpezu	35.007,98	1.839,73	% 5,26	2.027	1.574	1,29	17,27	169
LOTE 20 - Urizaharra/Peñacerrada	46.043,46	2.024,01	% 4,40	3.664	2.109	1,74	12,57	305
LOTE 21 - Bernedo	35.005,36	1.012,08	% 2,89	2.051	1.292	1,59	17,07	171
LOTE 22 - Guardia/Laguardia	82.506,73	3.858,97	% 4,68	7.046	4.762	1,48	11,71	587
ESKUALDEKO GARRAIOA	1.188.126,75	81.849,59	% 6,89	105.570	61.336	1,72	11,25	8.798

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Arloak inbertsio teknologiko handiak egin izan ditu azken ekitaldietan, foru aldundiaren herri arteko garraio publikoaren bidez -Alavabus eta eskualde garraioa- eskaintzen dugun zerbitzua hobetzeko, modernizatzeko eta Arabako herritarrentzat erakargarriago egiteko.

Horrela, eta inbertsio horiei esker, honako hauek ezarri dira: plataforma teknologiko bat, txartel sistema batek eta ULS batek (ustiapenerako laguntza sistema) osatua, zerbitzua kudeatzeko; Bat, Barik eta Mugi txartelak, ordainketa egiteko; lineako lanabes berriak, hala nola txartelak erosteko eta erreserbatzeko zentrala; espedizioen planifikatzailea eta gailu mugikorretarako eta abarretarako app-ak. Gainera, Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko erabiltzaileei arreta emateko Zerbitzu Integrala ezarri da, foru garraioaren bidaiariekin zuzeneko komunikazio kanal bat gaitzeko helburuarekin, herritarrei foru garraioaren ordutegi, ibilbide, geltoki, tarifa eta ordainbideei buruzko informazio praktikoa guztia modu arin eta eraginkorrean emateko.

2025. urtean, jarduketa aipagarri hauek egin dira:

- Otsailaren 25eko 64/2025 Foru Aginduaren bidez, INDRA SISTEMAS, S.A. enpresari adjudikatu zitzaion “BAT txartel pertsonalizatuak dituzten ohiko erabiltzaileentzako hobari-prozesuan hobekuntzak garatzea” kontratua, 42.262,88 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Deskontu progresiboko sistemak urtebeteko funtzionamendua izan ondoren eta metatutako esperientziaz abiatuta, hainbat hobekuntza txertatu dira haren funtzionamendua optimizatzerantz bideratuta. Horien artean, nabarmentzekoa da kalkulu algoritmoaren aldaketa, hauek lortzeko: deskontuetan progresibitate handiagoa; hobariak partzialki aplikatzeko aukera, eskuragarri dagoen saldoaren arabera (BAT txartelaren saldoaren mugara arte); eta hobari aldiak hobeto zehaztea.

Era berean, doikuntzak egin dira BAT txartelari lotutako datuen tratamenduan eta titularren adostasun informatua kudeatzean, sistemaren erabileran gardentasuna eta segurtasuna indartuz.

- Ekainaren 2ko 244/2025 Foru Aginduaren bidez, INDRA SISTEMAS, S.A. enpresari adjudikatu zitzaion “Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioan 15 urtetik beherakoentzako elkarrengarritasuna Barik eta Mugi txartelen bidez” garatzeko zerbitzuaren kontratua, 23.925,33 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Euskadiko Garraio Agintaritzaren Elkarrengarritasun Mahaian hartutako akordioen barruan kokatzen den jarduketa horri esker, Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko zerbitzuaren doakotasuna txartel horiek erabiltzen dituzten 15 urtetik beherako erabiltzaileengana zabaldu da. Hobekuntza hori 2025eko uztailaren 1ean ezarri zen.
- Ekainaren 17ko 353/2025 Erabakiaren bidez, “Alavabuseko garraio erregularraren eta Eskualdeko Garraioaren plataforma teknologikoa eta ontziratutako ekipamendua berritzea” zerbitzu eta horniduren kontratu mistoaren gauzatzea adjudikatu zen, 24 eta 29 hilabete arteko gauzatze epearekin.

2025eko ekitaldian zehar proiektu honen esparruan aurreikusitako lanak garatu dira, eta horri esker, zerbitzua kudeatzeko sistemak, erabiltzaileentzako informazioa eta txartelak balioztatzeko eta saltzeko sistemak modernizatu ahal izango dira. Era berean, Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko ibilgailuen flotan instalatutako ekipamendu teknologikoa berrituko da, zerbitzuaren kalitatea eta efizientzia hobetzen lagunduz.

- 2025eko abuztuan, Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko informazio praktikoa GeoAraba plataforman sartzea, erabiltzaileei horretarako sarbidea errazteko helburuarekin. Web plataforma horren bidez, Arabako maparen gainean modu grafikoa eta xehetasun osoz ikus daitezke foru

garraioaren lineen ibilbideak eta geltokiak. Informazio hori zabaltzeko kanalak zabaltzen ditu, GeoAraba web atarian bertan (<https://geo.araba.eus/es/>) eta haren mapa kartografikoetan sartuz.

- Lan hauek amaitu dira: “Okupazio Sisteman, Bidaia Planifikatzailean eta Alavabus zein Eskualdeko Garraioko mugikorrentzako aplikazioetan hobekuntzak, BAT txartelaren erabiltzaileentzat bi garraio bideen arteko alaketak gaituz eta Eskualdeko Garraioko erabiltzaileei erreserbak desgaituz”. Lan horiek amaitzeko, Alavabuseko zerbitzuetan okupazio muga gainditu izanaren abisuak ezarri dira, Alavabuseko planifikatzailearen errendimendua hobetu da eta lineen, ibilbideen, geltokien eta espedizio orduen informazioa jasotzen duen web zerbitzu berri bat argitaratu da.
- Urriaren 14ko 602/2025 Erabakiaren bidez, “Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko erabiltzaileei arreta emateko zerbitzua” kontratu berria egitea VERSIA CONTACT CENTER, S.L. enpresari adjudikatu zitzaion, 249.200,00 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Kontratu berri horren helburua da Foru Garraioaren Erabiltzailei Arreta Emateko Zerbitzu Integralaren baliabide materialak eta giza baliabideak indartzea, eta joan den 2024. urtean telefonoz, posta elektronikoz edo sare sozialen bidez 52.000 kontsulta baino gehiagori erantzun zien euskarriaren kalitatea bermatzea.
- Azaroaren 26ko 579/2025 Foru Aginduen bidez, INDRA SISTEMAS, S.A. enpresari adjudikatu zitzaion “ALAVABUSEko eta Eskualdeko Garraioko erreserben kudeaketan hobekuntzak eta EGBren (BAT txartela kudeatzen duen erakundea) eskakizuna” zerbitzua, 56.924,45 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Kontratu berri horren helburua da Eskualdeko Garraioaren eta Alavabuseko erreserben kudeaketan funtzionalitate berriak txertatzea, zerbitzua hobetze aldera. Besteak beste, Alavabuseko lineetan ibilbide bidezko okupazioaren kudeaketa, Eskualdeko Garraioan azken orduko erreserben kudeaketa eta Alavabuseko erreserba eta salmenta sisteman mugikortasun urriko pertsonentzako plazen kudeaketa daude.
- Abenduaren 30eko 832/2025 Erabakiaren bidez onetsi da “Alavabuseko C01 Durango/Gasteiz/Miranda emakidarako ontziratutako ekipamendu berria hornitzea”, 226.754,00 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Jarduketa horren helburua da Alavabuseko sistema teknologikoa indartzea, ontziratutako ekipamendu berria erosiz eta eskuragarri dagoen stock maila handituz. Horrela, gerta daitezkeen istripuen aurrean erantzuteko gaitasuna hobetzen da, ekipoak arin eta eraginkortasunez ordeztzea ahalbidetuz, eta zerbitzuaren emakidei atxikitako flota handituko balitz behar adina baliabide material egotea ziurtatzen da.

2025ean kontratu berrien edo garatzen jarraitu direnen laburpena honako hau da:

KONTRATUA	LIZITAZIOA	ADJUDIKAZIOA	ZENBATEKOA	ADJUDIKAZIODUNA
ALAVABUSEko eta Eskualdeko Garraioko erreserben kudeaketan hobekuntzak eta EGBren (BAT txartela kudeatzen duen erakundea) eskakizuna	462/2025 FA, urriaren 9koa	579/2025 FA, azaroaren 26koa	56.924,45 €	INDRA SISTEMAS SA
Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko erabiltzaileei arreta emateko zerbitzua	289/2025 Erabakia, maiatzaren 27koa	602/2025 Erabakia, urriaren 14koa	249.200,00 €	VERZIA CONTACT CENTER, S.L.
Barik eta Mugi txartelen bidez 15 urtetik beherakoentzako elkarreragingarritasuna garatzeko zerbitzua	244/2025 FA, ekainaren 2koa	353/2025 FA, uztailaren 30ekoa	23.925,33 €	INDRA SISTEMAS SA

Arabako Foru Aldundiaren herri arteko garraioa (Alavabus), eskualdeko garraioa eta ekipamendu ontziratua eta lotutako terminal eramangarriak kudeatzeko eta kontrolatzeko zentroaren mantentze zuzentzaile, ebolutibo, egokitzaile eta prebentiboa	432/2024 Erabakia, uztailaren 16koa	500/2024 Erabakia, abuztuaren 2koa	687.560,30 €	INDRA SISTEMAS SA
Alavabuseko C01 Durango/Gasteiz/Miranda emakidarako ontziratutako ekipamendu berria hornitzea	832/2025 Erabakia, abenduaren 30ekoa	182/2026 Erabakia, martxoaren 24koa	226.754,00 €	INDRA SISTEMAS SA
Hobekuntzak okupazio sisteman, bidaia planifikatzailean eta Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko mugikorraren aplikazioetan, bi garraiobideen arteko aldatetarako gaitzea BAT txartelaren erabiltzaileentzat eta eskualdeko garraioaren erabiltzaileentzako erreserbak desgaitzea, Europar Batasunak finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan - NextGeneration EU	93/2023 FA, irailaren 28koa	243/2024 FA, apirilaren 30ekoa	151.540,40 €	GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS SA
Bat txartel pertsonalizatuak dituzten ohiko erabiltzaileei hobaria emateko prozesuan hobekuntzak egiteko zerbitzua	657/2024 FA, abenduaren 19koa	64/2025 FA, otsailaren 25ekoa	42.262,88 €	INDRA SISTEMAS SA
Eskualdeko garraioaren eta Alavabuseko garraio erregularren zerbitzuaren ustiapenerako laguntza sistemak, okupazio zentrala, bidaiarientzako informazio sistema eta baliozkotze eta salmenta sistema berritzea	814/2024 Erabakia, abenduaren 23koa	353/2025 Erabakia, uztailaren 17koa.	1. sorta: 1.015.190 € 2. sorta: 1.573.000 € 3. sorta: 276.575,15 €	1. sorta: UTE NTT GREEN DEAL-NTT SPAIN 2. sorta: UTE GRUPO COMUNICACIONES Y SONIDO-HEIMDAL 3. sorta: TEKIA INGENIEROS, S.A.

ZERBITZUAREN KALITATEA / ERREKLAMAZIOAK

Arabako Foru Aldundiko emakidak horietarako guztietarako oro har ezarritako kalitate sistema baten bitartez arautzen dira. Hartara, diruz lagundutako lineen lizitazioen baldintza teknikoaren agerian zerbitzuaren kudeaketaren jarraipena egin eta kontrolatzeko mekanismo bat ezarri da, kalitate eta kudeaketako irizpideetan eta horiei lotutako adierazleetan oinarrituta.

Kalitate sistema irizpide hauen arabera arautzen da:

- Ustiapen efizientea lortzea, eta, horretarako, ordutegiak betetzea eta zerbitzuak eskuragarri izatea.
- Ibilgailuak fidagarritasun eta funtzionamendu baldintzetan izatea.
- Bidaiarien segurtasuna areagotzea.
- Kalitatezko zerbitzua ematea, eta kalitate hori autobusaren ezaugarrietan zein autobus barruko informazio sistemetan, geldialdietan edota garbiketan islatzea.

- Erabiltzaileei arreta emateko zerbitzu ezin hobea ematea.
- Erabiltzaileen artean zerbitzuaren irudia etengabe hobetzea lortzea.

2022tik aurrera, Alavabus eta eskualdeko garraioaren erabiltzaileei arreta emateko zerbitzu integrala dago. Herritarrei foru garraioaren ordutegiei, ibilbideei, geroalekuei, tarifei eta ordaintzeko moduei buruzko informazio praktiko guztia modu arin eta eraginkorrean emateko, zalantzak argitzeko eta kudeaketa jakin batzuk egiten laguntzeko bidea da. Baita gure foru garraioa hobetzeko proposamenak eta iradokizunak jasotzeko ere. Hori guztia ordu tarte zabal batean (07:30etik 22:00etara urteko egun guztietan, salbu eta urtarilaren lehen eta abenduaren 25ean).

Bide gehiago (telefono bidezko arreta, Twitter eta posta elektronikoa) eta erabiltzaileei arreta emateko ordutegi zabalagoa izateak zerbitzuaren kultura aldatzea ekarri du, eta horrek eragin du gehiago hurbiltzea bidaiariak eta zerbitzuaren plangintza. Plangintza horrek egun oinarri du jasotzen den informazio guztia, zeina oso baliagarria baita doiketak eta egokitzapenak egiteko.

Bestalde, jasotako komunikazioak nabarmen ugartu ziren hainbat mugarrirengatik. Adibidez, 2025eko uztailaren lehen bidaiarien errepideko garraio publiko erregularreko A-3700 emakida bateratua (Bilbo/Gasteiz) eta aparteko deskontuak abian jartzea.

Zerbitzu horrek izan duen arrakasta eta sendotu egin dela ikusita, 2025ean zehar Foru Garraioaren Erabiltzaileei Arreta Emateko Zerbitzu berri bat kontratatzeke lizitazioa egin da, indarrean dagoen kontratuarekin alderatuta zuzkidura ekonomikoan % 40ko gehikuntza dakarrena.


Indartze horren helburua zerbitzuaren baliabide materialak eta giza baliabideak hobetzea da, horrela kalitatezko arreta bermatuz. Azpimarratzekoa da zerbitzu horrek 52.000 kontsulta baino gehiago kudeatu zituela 2024an hainbat kanal erabilita, hala nola telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak.

Urriaren 14ko 602/2025 Erabakiaren bidez, "Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko erabiltzaileei arreta emateko zerbitzua" kontratu berria egitea adjudikatu zitzaion VERSIA CONTACT CENTER, S.L. enpresari, 249.200,00 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne).

2025an Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak eta Erabiltzaileen Arretarako Zerbitzu Zentralak jasotako informazio eskaerei, proposamenei eta kexei dagokienez, guztira 1.189 komunikazio egin dira, honela banatuta:

ZERGATIAK	Orokorra	AIREPORTUA	BAZTERRAK	BILBAO	AR01	AR02	AR03	C01	C02	C03	EG	GUZTIRA
MATXURAK	0	0	0	0	10	9	8	5	0	0	0	32
BARIK/MUGI (ORDAINKETAK)	2	0	0	0	3	3	6	7	0	1	1	23
BAT	20	1	0	13	15	34	46	39	4	9	1	182
BIZIKLETAK/ PATINETEAK	1	0	0	0	2	3	4	0	0	0	16	26
GIDATZEA	10	0	0	1	87	36	78	42	1	2	1	258
AUTOBUSEN EGOERA	0	0	0	0	20	11	17	5	2	0	10	65
ORDUTEGIAK	6	2	2	11	13	15	12	8	0	1	1	71
GERALEKUAK	7	0	0	1	26	16	24	8	0	0	2	84
IBILBIDEAK	2	0	5	4	16	7	10	4	0	0	4	52
INDARGARRIAK	3	0	1	3	42	16	25	25	0	0	7	122
ATZERAPENAK	9	0	2	5	77	41	71	32	3	3	0	243
ENPRESAREN ARRETA-ZERBITZUA	8	0	4	2	5	2	3	3	1	1	2	31
GUZTIRA 2025	68	3	14	40	316	193	304	178	11	17	45	1.189

EGOERA	AR01	AR02	AR03	C01	C02	C03	OROKORRA	EG	GUZTIRA
ERANTZUNDA ETA BUKATUTA	309	193	297	176	8	16	60	45	1.104
EMPRESAREN ZAIN	7	0	7	2	3	1	0	0	20
ERANTZUNDA ETA ZERBITZU- AZTERLANAREN ZAIN	0	0	0	0	0	0	65	0	65
GUZTIRA	316	193	304	178	11	17	125	45	1.189



GARRAIOKO ALTZARI OSAGARRIAK

Mugikortasun Jasagarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak eskumena du bidaiariak errepide bidez garraiatzeko herri arteko garraio publikoan, eta, horretarako, lurraldetik partzialki edo osorik igarotzen diren bidaiarien garraio erregularreko hainbat emakida kudeatzen ditu, Alavabus eta eskualdeko garraio zerbitzuaren pean.

Erabiltzaileak garraiatzeko zerbitzu publiko horiek foru aldundiaren titulartasuneko markesinekin egokitutako gareleku ugari dituzte lurralde historikoan, hirurogeita lau guztira. Lau modelo desberdin daude:

MODELOA	UNITATEAK
Fatco zuria	12
Fatco arrosa	22
Catón gorria	29
Joma gorri-morea	1

Beharrezkoa da markesina horiek mantentze egoera onean egotea, erabiltzaileei itxaron leku egokia emateko, eguraldi txarretik babestuta egon daitezen, eta halaber foru garraio publikoko zerbitzuen inguruko informazio taulak edukitzea.

Horretarako, 2024 urterako, urriaren 6ko 115/2023 Foru Aginduaren bidez, “Arabako Foru Aldundiaren jabetzako markesinen mantentze globalerako zerbitzua” onetsi zen, eta azaroaren 24ko 224/2023 Foru Aginduaren bidez Elecnor Servicios y Proyectos, S.A. enpresari adjudikatu zitzaion, hamabi (12) hilabeteko gauzatze-epearekin eta 44.999,90 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne).

Abenduaren 16ko 649/2024 Foru Aginduaren bidez, kontratuaren lehenengo luzapena onetsi zen, urtebeteko iraupenarekin eta 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, hasierako kontratuaren ezaugarriak aldatu gabe mantenduz.

2025ean, konponduz joan dira egoera txarrean zeuden beira guztiak, apurtutako beirak ahalik eta epe laburrenean aldatuz, estetika kontuengatik ez ezik, batez ere bidaiarien segurtasuna zaintzeko eta gerta daitezkeen ezbeharrak galarazteko.

Era berean, foru jabetzako markesina guztien bi garbiketa global egin ziren, irudi ona eta higie baldintzak mantentzeko.

Fatco zuria modeloko markesinetan (zaharrenak dira), metakrilatoak ordeztu ziren, haien egoera optimizatzearen.

Era berean, Fatco arrosa modeloko markesina askotan egituraren berariazko pintura lanak eta bankuak jarri edo bernizatze lanak egin ziren, erabiltzaileei itxarotea errazteko.

Azkenik, markesina batzuetan estalki metalikoak aldatu ziren, itoginak eta ur filtrazioak saihesteko.

BIZIKLETAREN ESTRATEGIAREN GARAPENA

Azaroaren 22ko 712/2022 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak egindako eta sustatutako Bizikletaren Arabako Estrategia dokumentua onetsi zen, mugikortasun jasangarriaren aldeko planteamendu orokor eta unibertsalaren esparruan Arabako herritarren artean bizikletaren erabilera sustatzeko gida izan dadin erakunde publiko eta sozialentzat. <https://irekia.araba.eus/eu/-/estrategia-de-la-bicicleta-de-alava>

Dokumentu honek bizikletazko mugikortasun politiken ibilbide orria jasotzen du, hainbat eremu integratuz (garraioak, bide segurtasuna, hirigintza, lurralde antolamendua, ingurumena, energia, herritarren partaidetza, ekonomia, fiskalitatea, industria, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hezkuntza, ikerketa, osasuna, kirola, aisia eta turismoa, haurtzarora eta gazteria, mugaz gaindiko lankidetzak, etab.), ibilgailu pribatu motorizatuaren gehiegizko erabileraren alternatiba nagusietako bat izan dadin bizikleta.

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak honako jardura nabarmen hauek egin ditu 2025ko ekitaldian, Bizikletaren Estrategiaren esparruan:

- **Eskola umeen artean bizikleta ohiko garraiobide gisa sustatzera bideratutako hezkuntza kanpaina baten proiektu pilotua garatzea.** Urtearen azken lauhilekoan, ekimen hori ia 500 ikaslerengana iritsi da; bide segurtasunari buruzko oinarritzko ideiak eskaini zaizkie eta ikastetxera bizikletaz joateko ibilbide seguruak ezagutarazi zaizkie.

Kanpaina 11 eta 13 urte bitarteko eskola umei zuzenduta egon da, Lehen Hezkuntzako 6. mailakoei eta DBHko 1. mailakoei hain zuzen, eta saio teorikoak (sentsibilizaziokoak) eta jardura praktikoak uztartu ditu. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek bizikletaren erabileraren segurtasunari eta onurei lotutako alderdiak landu dituzte, haien trebezia hobetzeko dinamikekin batera. DBHko 1. mailakoen kasuan, bizikletaren mekanikari buruzko oinarritzko prestakuntza eta ikastetxera iristeko ibilbide seguruei buruzkoa ere gehitu da.

Ekimen hori irailetik azarora bitartean egin da Arabako Lurralde Historikoko 11 ikastetxetan, honako udalerrri hauetan banatuta: Amurrio, Agurain, Alegría-Dulantzi, Iruña Oka, Laguardia, Oion, Kanpezu, Murgia, Zuia eta Erriberabeitia.

- **Arabako Bizikletaren Estrategiaren Hirurteko Memoria idaztea.** 2025ean zehar, Arabako Bizikletaren Estrategiaren 2023-2025 Hirurteko Memoria idazteko lanak egin dira. Haren kontratazioa uztailaren 10eko 303/2025 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Memoria horren helburua Estrategiaren gauzatze eta jarraipen maila aztertzea da, egindako aurrerapenak ebaluatze eta arlo horretako etorkizuneko jarduketak bideratzeko. Dokumentua 2026ko lehen sei hilekoan argitaratzea aurreikusten da.

- **Lankidetzak aktiboak izan da Red de Ciudades y Territorios por la Bicicleta elkartearen barruan. Arabako Foru Aldundia elkarteari atxikita dago 2023tik, eta 2024-2027 agintaldirako zuzendaritza batzordeko kide da.** 2025eko ekitaldian, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak bat egin du Bizikletaren Munduko Egunarekin, eta Mugikortasun Jasangarriaren Eskolak emandako online etengabeko prestakuntza programan parte hartu du, ezagutzak partekatzeko eta bizikletaren inguruko ezagutza metatua garatzeko.

Gainera, Bizikletaren aldeko Hirien eta Lurraldeen Sareak "Araba bizikletaz" proiektu turistikoaren aitortza egin du "SareBizikleta 2025" sariaren bidez, "biziekonomia" kategorian, bizikletarekin lotutako jardura ekonomikoak bultzatzeko eta tokiko garapen ekonomikoari laguntzeko duen gaitasunagatik.

Proiektua hauek osatzen dute: 44 orrialdeko paperezko gida batek eta 'eBook' batek (gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez); aurkezpenetan, sare sozialetan eta abarretan zabaltzeko ikus-

entzunezko batek; eta bizikletazaleek erabiltzen dituzten online plataformetako kanal ofizialek, ibilbideen track, deskribapen eta argazkiekin (Wikiloc, Bikemap, Naviki, Ridewithgps, Alltrails...).

Gida bost ataletan egituratzen da, txirrindulari motaren arabera hainbat ibilbiderekin: Familia Turismoa, Gravel, Mendiko Bizikleta, Errepidea eta Araban zehar bidaiatzea.

Ekimen hau Arabako Bizikletaren Estrategiaren barruan kokatzen da, eta bizikleta garraibide jasangarri eta osasungarri gisa sustatu nahi du, ikastetxera, lantokira, kirol instalazioetara eta nahitaez joan beharreko beste toki batera mugitzeko erabil dadin. Bizikletaren Estrategiak bizikleta sustatzeko ekintzak ere aurreikusten ditu, aisialdiaz gozatzeko.

- **Gasteiz eta Arabako Teknologia Parkea lotuko dituen bidegorri berriaren obrak egitea.** 2025ean zehar, Gasteiz eta Arabako Teknologia Parkea lotuko dituen bidegorri berriaren obrak egin dira, 2,1 milioi euroko aurrekontuarekin. Errepide Zerbitzuak VC2 Gasteiz/Arabako Teknologia Parkea izeneko ibilbide berri hori eraikitzeke beharrezkoak diren lanak gauzatu ditu ekitaldian zehar. Azpiegitura berri honen helburua mugikortasun jasangarria sustatzea eta lurraldeko jarduera ekonomikoaren gune nagusietako batera bizikletaz joatea erraztea da. 2026ko lehen hiruhilekorako zerbitzuan jartzea aurreikusten da.
- Irailean egitea Arabako Bizikletaren Estrategiaren koordinazio mahaiaren bilera.

ARABAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN 2025–2034 II. PLANA

Abenduaren 3ko 711/2024 Erabakiaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Lurralde Historikoaren Mugikortasun Jasangarriaren 2025–2034 II. Plana onetsi zuen, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak idatzi eta sustatua.

Plan hau datorren hamarkadan Arabako garraio sistema eta mugikortasuna hobetzeko eta egokitzeko ibilbide orria da, arabarren beharrei erantzun eraginkor eta efiziente bat emateko helburuarekin.

Informazio gehiago hemen eskuragarri: <https://irekia.araba.eus/eu/-/plan-movilidad-sostenible-2025-2034>

Planak 30 jarduketa biltzen ditu guztira, bost lerro estrategikotan antolatuta:

1. lerroa: Herri arteko garraio publikoa hobetzea eta zabaltzea, eta mugikortasun jasangarriagoa sustatzea.
2. lerroa: Garraiobide ezberdinen arteko intermodalitatea bultzatzea.
3. lerroa: Arabako Mugikortasun Agintaritza (AMA) indartzea, tarifa integraziorantz aurrera egiteko helburuarekin.
4. lerroa: Hiri inguruneetan mugikortasun jasangarria sustatzea, udalekin eta kuadrillekin lankidetzan.
5. lerroa: Bide azpiegitura, bide segurtasuna eta haren kudeaketa efizientea hobetzea.

2025ean hainbat jarduketa burutu dira, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

Lehenengo lerro estrategikoaren esparruan, herri arteko garraio publikoaren eskaintza handitzea eta hobetzea, eta herri arteko bidaia orrietan garraiobide jasangarriagoen erabilera sustatzea:

1.1. Alavabuseko herri arteko garraio publikoaren eta eskualdeko garraio zerbitzuaren (EG) eskaintza handitzea eta hobetzea. Neurriak:

1.1.1 Alavabuseko herri arteko garraio publiko kolektiboko linea erregularren zerbitzua zabaltzea, hobetzea eta berrantolatzea.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua murgilduta egon da Arabako Lurralde Historikoan bidaiarien errepideko erabilera orokorreko herri arteko garraio publiko erregularreko zerbitzuen lizitaziorako proiektuak eta baldintza agiriak idazten: AR-01 Araba Erdialdea, AR-02 Aiara eta AR-03 Arabako Errioxa.

1.1.2 ALHko Eskualdeko Garraioko zerbitzu lineak berrantolatzea eta 1.1.5 Eskualdeko Garraio zerbitzuan hobekuntzak egitea.

Abenduaren 30eko 834/2025 Erabakiaren bidez onetsi da “Arabako Lurralde Historikoan pertsona bidaiarien eskualdeko garraio zerbitzua. 1etik 25era bitarteko loteak” kontratatzea, Lurraldeko landagune txikiak oinarritzko zerbitzuak (garraioa, hezkuntza, osasuna, merkataritza, kirol instalazioak, tokiko administrazioa, etab.) dauden eskualdeburuekin lotzen dituen zerbitzu hori berritzeko eta modernizatzeko.

1.1.3 Gasteizen dauden geroalekuak hobetzea eta garraio publikoko modu ezberdinen arteko koordinazioa.

Erakunde arteko lantalde tekniko bat sortu da Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, modu proaktiboan eta koordinatuan lan egin duena foru garraio publikoaren eta TUVISAren hiri garraioaren arteko bizikidetzak hobetzeko helburuarekin.

Ondorioz, proiektu bat diseinatu da, hirian foru garraiorako berariazko 15 geroaleku jartzea aurreikusten duena, hiri autobusekin batera erabiltzea saihestuz eta zerbitzuaren ikusgaitasuna, irisgarritasuna eta efizientzia hobetuz.

Proiektu horrek markesina berriak jartzea eta hiri espazioa egokitzea dakar, berariazko geroaleku zonak sortzeko.

Uztailen, Gasteizko Udalak proiektu hori gauzatzeko kontratazioaren lizitazioa egin du, eta lanak 2026ko lehen sei hilabete zehar hastea aurreikusten da.

1.1.4 Sistema zentralen eta ontziratutako ekipamenduaren berrikuntza teknologikoa.

“ALAVABUSEko garraio erregularren eta Eskualdeko Garraioaren plataforma eta ontziratutako ekipamendua berritzea” zerbitzu eta horniduren kontratu mistoaren gauzatzeko adjudikatu da, ekainaren 17ko 353/2025 Erabakiaren bidez eta 24 eta 29 hilabete arteko gauzatzeko epearekin. Proiektu honi esker, zerbitzua kudeatzeko sistemak, erabiltzaileentzako informazioa eta txartelak balioztatzen eta saltzeko sistemak hobetu ahal izango dira, bai eta ibilgailuetan jarritako ekipamendua berritu ere.

1.1.6 Foru autobus geltokietako instalazioak hobetzea eta 1.1.10 Alavabuseko herri arteko lineekin industriaguneetarako irisgarritasuna hobetzea

“Alavabus eta Eskualdeko Garraioko geltokietan dauden markesinen eta seinaleztapen eta informazioko beste elementu batzuen sarearen inbentarioa eguneratzeko zerbitzua, eta ALHko Jasangarritasun Mugikortasunaren II. Planen (2025-2034) ezarritako hobekuntzak ezartzeko plan zuzendaria egitea” kontratua esleitu da, martxoaren 18ko 124/2025 Foru Aginduaren bidez. 2025ean zehar, markesinen eta informazio elementuen sarearen inbentarioa eguneratu da, bai eta foru garraio publikoko geroalekuak hobetzeko Plan Zuzendaria idatzi ere.

2025ean Plan Zuzendaria garatzen hasi da eta lehenengo jarduketak burutu dira, hala nola Lezako Ospitaleko geroalekuan argiztapena hobetzea edo segurtasuna indartzeko geroaleku batzuk lekuz aldatzea. Halaber, geroaleku berriak gaitu edo lehendik zeudenak egokitu dira honako herri hauetan: Ubidea, Genevilla, Cabredo, Marañón, Trokoniz, Ixona eta Gasteizko hainbat puntutan.

1.1.8 Tarifak integratzea.

Tarifen integratzea ezartzeko beharrezkoa den eredu teknologikoa zehazten duen azterlana amaitu da, operadoreen arteko koordinazioan eta Arabako Mugikortasun Agintaritzaren etorkizuneko partzuergoaren sorkuntzan aurrera egin.

1.3 Herri arteko joan-etorrietan garraiobide jasangarriagoen erabilera sustatzea.

1.3.1 Herri arteko bizikleta sarea garatzea eta mantentzea sustatzea.

Gasteiz eta Arabako Teknologia Parkea lotuko dituen bidegorri berriaren obrak egin dira, 2,1 milioi euroko inbertsioarekin. Azpiegitura honek lurraldeko jardura ekonomikoko gune nagusietako batera bizikletaz joatea erraztuko du eta 2026an jarriko da martxan.

1.3.3 Mugikortasun jasangarriari buruzko informazio eta sustapen kanpainak egiteko.

Sentsibilizazioaren esparruan, Stop Violencia Vial elkartearekin lankidetzan aritu da uztailen argazki erakusketa baten bidezko informazio kanpaina batean, mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzeko.

Bestalde, Mugikortasunaren Europako Astearen karira antolatutako jarduera programaren barruan, arabarren artean foru garraio publikoaren sistema ezagutaraztera bideratutako informazio kanpaina bat garatu da. Kanpainaren barruan, 46.000 informazio eskuorri banatu dira Arabako etxe guztietan, Gasteizen izan ezik. «Zurekin linean» lelopean, material horrek informazio idatzia eta QR kodeak uztartzen zituen, lineen ibilbide eta ordutegietarako sarbidea errazteko, bai eta tarifei, deskontu progresiboko sistemari eta txartelen online erosketa eta erreserbari buruzko informazioa ere.

Gainera, eskuorriak beste zerbitzu batzuei buruzko informazio baliagarria jasotzen zuen, hala nola emakumeentzako eta adingabeentzako eskariko gaueko geraldak, webgunean eta aplikazio mugikorrean eskuragarri dagoen bidaia planifikatzailea, eta erabiltzaileei arreta emateko kanalak (telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak).

Gainera, postontzietan banatzeko komunikazio kanpaina bat garatu du, apirilaren 1etik aurrera eskualdeko garraioaren 7A eta 7B lineetan ezarritako aldaketen berri emateko.

1.3.4 ALHko kuadrilletako eta toki erakundeetako teknikarientzako prestakuntza jardunaldiak: Foru garraioaren zerbitzurako prestakuntza.

Urriaren 24ko 522/2025 Foru Aginduaren bidez, honako kontratu hau onetsi zen: «Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla eta udal bakoitzerako aurkezpen bat eta eduki pertsonalizatuak egiteko zerbitzua, herri arteko foru garraio publikoko zerbitzuei buruz (Alavabus eta Eskualdeko Garraio zerbitzua)». Udalerrri eta kuadrilla bakoitzerako aurkezpenak eta eduki pertsonalizatuak prestatzeko lanak egin dira, ALHko kuadrilla eta udaletako teknikarientzako prestakuntza ikastaroak emateko. Horren helburua da lurralde osoan foru garraio publikoaren sarea herritarrei azaltzea, komunikatzea eta zabaltzea erraztea.

Hirugarren lerro estrategikoaren esparruan, Arabako Mugikortasun Agintaritza indartzeari dagokionez, honako neurri hauek garatu dira:

3.1 Arabako Mugikortasun Agintaritzaren partzuergoa eratzen aमितzea.

Uztailaren 11n AMAre Osoko Bilkura egin zen, eta bertan, besteak beste, BAT txartela Arabako trenbideko aldiriko zerbitzu berrian ordainbide gisa sartzeko aurreikuspena aztertu zen. Era berean, Eusko Jaurlaritzak tarifak bateratzeak garraio operadoreetan duen eragin ekonomikoa eguneratzeko azterlan baten kontratazioa bultzatzea adostu zen. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartu zuen laguntza tekniko baten kontratazioa, AMAre partzuergoa sortu eta hornitzeko ibilbide orria diseinatzeko, partzuergoa eratze oinarri juridikoaren aldez aurreko azterketa eta hura AFAre atxikitzea barne.

Abenduaren 29an beste osoko bilkura bat egin zen, eta bertan Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena berritzea onetsi zen.

Gainera, foru garraio zerbitzuetan gazte profil bat (26 urtetik beherakoak) sartzeko lan teknikoekin jarraitzea adostu zen, eta aurretik hartutako akordioetan lortutako aurrerapenak aurkeztu ziren.

LANKIDETZA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEKIN

ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKORAKO GARRAIO HITZARMENA

Irailaren 20ko 606/2016 Erabakiaren bidez, lankidetza hitzarmen bat sinatzea onetsi zen Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta Arabako Parke Teknologikoaren Kontserbazioko Hirigintza Erakundearen artean, Gasteiz eta Arabako Parke Teknologikoaren artean bidaiarien erabilera bereziko garraio erregularreko zuzeneko zerbitzu bat ezartzeko. Hitzarmen horren bidez, administrazio horietako bakoitzak konpromisoa hartu zuen Gasteiz eta Arabako Parke Teknologikoaren arteko zuzeneko garraio zerbitzuaren kontratazioak sortzen duen defizitaren % 12,5 finantzatzeko (erakundeak egindako kontratazioa), urtean gehienez ere 20.000 euroko mugarekin. Hitzarmen hori 2016ko urriaren 14an formalizatu zen, eta, ondoren, 2020ko maiatzaren 8an, lankidetza hitzarmenaren gehigarria formalizatu zen, hitzarmena araubide arauemaile berrira egokitzeke, haren indarraldia 40/2015 Legearen 49. artikuluan xedatutakora egokitzeke.

2022. urtean beste hitzarmen berri bat formalizatu zen. Hitzarmen horrek, hasieran, lau urteko iraupena izango du, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da. Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak urtero finantzatzeko duten zerbitzua 40.000 euro izango da —20.000 euro erakunde bakoitzeko, orain arte 10.000 eurokoa bazen ere—, maiztasuna handitzeko, erakargarriagoa izateko eta, horrela, egunero enpresa eremu horretara lanera joaten diren pertsonak erabil dezaten sustatzeko.

2025ko ekitaldian, 20.000 euroko gastua eragin dio Arabako Foru Aldundiari.

TRANBIA HEDATZEKO HITZARMENA

Abenduaren 23ko 810/2025 Erabakiaren bidez, Euskal Trenbide Sarearen, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea onetsi da, Gasteizko tranbia Zabalganara eta Betoñuko garaieetara luzatzea finantzatzeko eta eraikitzeke.

Arabako Foru Aldundiak 16,1 milioi euro bideratzeko ditu guztira datozen lau urteetan hedatze hori finantzatzeko, hiriburuan zehar zein lurralde osoan mugikortasun jasangarriago baterantz aurrera egiten jarraitzeke helburuarekin.

Aurrekontuaren eta obren plangintzaren arabera, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak inbertsioaren % 17,5 bere gain hartuko du, honako egutegi honen arabera banatuta: 378.000 euro 2026an; 4,3 milioi euro 2027an; 5,6 milioi euro 2028an; eta 5,8 milioi euro 2029an.

Hitzarmena 2026ko urtarrilean formalizatzea aurreikusten da.

BESTE JARDUKETA BATZUK

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak, 2021eko martxoan, lankidetza hitzarmen bat formalizatu zuen **Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin, bidaiariak errepidez garraiatzeko garraio publiko erregularraren arloan, haien emakidetakozko zirkulazio jakin batzuei dagokienez.**

Hitzarmen horren esparruan, hainbat jarduketa burutu dira 2025ean zehar. Zehazki, otsailaren 18ko 91/2025 Erabakiaren bidez, gehigarri bat sinatzea onetsi da, honako helburu hauekin:

- Eskualdeko Garraio zerbitzuko 19B Kanpezu-Bernedo linean, 2025eko martxoaren 1etik aurrera, Nafarroako Marañón, Cabredo eta Genevilla herrietan gemaleku berriak sartzea. Hobekuntza horrek gune horietako biztanleei oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko erreferentziazko herria den Santikurutze Kanpezura iristea errazten die. Era berean, noranzko bakoitzeko espedizio gehigarri bat gehitu da arratsaldeko ordutegian linea horretan. Jarduketa horrek administrazioen arteko lankidetzaren indartzea du eta garraio publikoko zerbitzu eraginkorragoa eta kalitate handiagokoa eskaintzen laguntzen du, bai Arabako herritarrentzat, bai Nafarroakoentzat.
- Hitzarmenaren indarraldia beste lau urtez luzatzea, 2025eko martxoaren 1etik 2029ko otsailaren 28ra arte. Hedatze horrek bi administrazioen arteko lankidetzaren esparrua mantentzeko eta finkatzeko beharrari erantzuten dio herri arteko garraio publikoaren kudeaketan, batez ere Araba eta Nafarroako lurraldeen artean loturak dituzten zerbitzuetan.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak 2021eko martxoan lankidetzaren hitzarmen bat formalizatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin, **errepideko bidaiarien garraio publiko erregularreko A-3700 (Bilbo/Vitoria-Gasteiz) zerbitzu bateratua emakida bidez modu kooperatiboan kudeatzeko. Akordio horrek, gainera, linea berri bat sortzea jasotzen zuen, A-3720 linea, Vitoria-Gasteiz Forondako eta Loiuko aireportuekin lotzen duena.**

2025ean zehar, bi administrazioek proiektu hori garatzeko beharrezkoak diren lanak amaitu dituzte, hitzarmena betez: 2025eko uztailaren 1ean Bilbo/Vitoria-Gasteiz emakida bateratu berria martxan jarri da, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak modu kooperatiboan kudeatuta. Vitoria-Gasteiz hiria Bilborekin eta haren metropoli eremuarekin lotzen duten linea guztiak biltzen ditu. Berrikuntza nagusi gisa, Arabako hiriburuaren eta Forondako zein Loiuko aireportuen arteko linea berria abian jartzea dakar.

Era berean, emakida berriak hobekuntza garrantzitsuak ekarri dizkie erabiltzaileei, bai zerbitzuaren baldintzetan, bai bidaia esperientzian. Horien artean nabarmentzekoa da txartelaren prezioaren murrizketa, BAT, BARIK eta MUGI txartelen bidez ordaintzeko aukera —deskontu gehigarri batekin—, hileko abonak eta ohiko erabiltzaileentzako 60 bidaiako bonuak sartzea, eta erosotasun, segurtasun zein irisgarritasun hobeak. Hobekuntza horiek ibilgailu modernoagoak eta erosoagoak sartuta gauzatzen dira; eserlekuen artean espazio handiagoa dute, eta bideozaintza sistemak, wifia, USB kargatzaileak eta bestelako zerbitzuak dituzte, baita segurtasun aktibo eta pasiboko sistema aurreratuak eta eraginkortasun maila handiagoa ere.

Azkenik, azaroaren 25eko 707/2025 Erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena berresteko Foru Arauaren proiektua onetsi zen, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibus zerbitzuko A3641 linean ibilbide berri bat sortzeko.

Hitzarmen honen xedea da mugikortasun jasangarria hobetzeko elkarlan eta lankidetzaren araubidea ezartzea, eta, hala, erreferentziako osasun zentro integratuekiko lotura hobetzea. Honen bidez, Arabako lurralde historikoko Aiaraldeko Kuadrillako herrientzat eta Urduñako udalerriarentzat erreferentziako osasun zentro integratuarekin lotura hobe eta zuzenagoa lortzea bilatzen da.

Zuzeneko zerbitzu berria 2026ko hasieran jarriko da abian eta nabarmen hobetuko du Aiaraldearen eta Galdakaoko Ospitalearen arteko ibilbidea, gaur egun dagoen zerbitzu arruntarekin alderatuz, eta joan-etorri azkarragoa eta erosoagoa eskainiko die bidaiari guztiei, eta, bereziki, zentro horretan ohiko hitzorduak dituzten eskualdeko adinekoei eta paziente kronikoei.

ZEHAPEN ESPEDIENTEAK

Autonomia Erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen diren eskatu ahalako garraio eta garraio erregularren harira, Arabako Foru Aldundiak errepide bidezko lurreko garraioak ikuskatzeko eskumenak baliatzen ditu, Errepide eta kable bidezko garraioei dagokienez Estatuak dituen ahalmenak autonomia erkidegoetan eskuordetzeari buruzko 5/1987 Lege Organikoaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegotik osorik igarotzen diren bidaiarien garraio erregularretan, Arabako Foru Aldundiak bere eskumena baliatzen du Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 4.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatuaren urtarilaren 10eko 10/2025 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2025rako Errepideko Garraioaren Ikuskapen Plana onetsi zen, bide segurtasuna hobetzeko eta errepideko garraioaren antolamendu hobea lortzeko funtsezko tresna gisa.

Hauek dira izapidetutako zehapen espedienteen datuak:

URTEA	HASITAKO ESPEDIENTEAK		EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	BORONDATEZKO ORDAINKETARIK GABE EBATZITA				BORONDATEZKO ORDAINKETAREKIN EBATZITA				EBATZITAKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOAK
	Zk.	Zenbatekoa	Zk.	Erabat onartuak	Partzialki onartuak	Baztertuak	Baliogabetuak	Deskontuarekin	Deskonturik gabe	Errepidean	Preskribatuta	
2023	1779	1.355.006,37 €	1532	88	9	244	0	527	0	664	0	71
2024	2.380	1.696.187,57 €	2.115	54	12	375	4	711	0	959	0	108
2025	2.011	1.879.609,17 €	1.988	51	3	280	20	690	0	944	0	89
% aldakuntza 25-23	13,04%	38,72%	29,77%	-42,05%	-66,67%	14,75%		30,93%	0,00%	42,17%		25,35%
% aldakuntza 25-24	-15,50%	10,81%	-6,00%	-5,56%	-75,00%	-25,33%	400,00%	-2,95%	0,00%	-1,56%		-17,59%

Hona hemen zer espediente hasi diren arau hauste motaren arabera sailkatuta:


ARAU HAUSTE MOTA		2023	2024	2025
A	Betebeharrak administrazio publikoarekin (kontzeptu guztiei oro har aplikatu beharrekoak)	75	92	44
B	Takografoa	141	264	246
C	Gidatzeko eta atsedeen hartzeko tarteak (561/2006) (aplikagarria 2007/04/11tik)	502	527	507
D	Abiadura-mugagailua		6	2
E	Eskatu ahalako salgai garraio publikoa	705	996	837
F	Salgai garraio pribatu osagarria	60	119	87
G	Salgai arriskutsuen garraioa	111	75	59
H	Salgai galkorren garraioa	24	22	15
I	Erabilera orokorreko bidaiari garraio publiko erregularra	11	50	25
K	Erabilera bereziko bidaiari garraio publiko erregularra -ESKOLAK	7	1	1
L	Erabilera bereziko beste bidaiari garraio publiko erregularrak			3
M	Eskatu ahalako bidaiari garraio publikoa 9 plazatik gorako ibilgailuz	2	3	0
N	Eskatu ahalako bidaiari garraio publikoa gehienez 9 plazako ibilgailuz	7	5	6
P	Bidaiari garraio pribatu osagarria		1	2
R	Osasun garraioa			0
S	Ibilgailuak gidariarekin alokatzea	25	31	34
T	Ibilgailuak gidaririk gabe alokatzea			0

U	Garraio operadoreak Garraio Agentziak - kudeatzaileak - biltegizainak	2	4	2
X	Ibilgailu guneak			0
Y	Bidaia agentziak			0
Z	Nazioarteko garraioa (ibilgailua geldiaraztea zehapenaren gordailua edo kauzioa egin arte)	107	184	141
Guztira		1.779	2.380	2.011

Eta ezarritako zehapenengatik bildutako zenbateko garbia (2025an egindako itzulketak kenduta):

Urtea	Guztira
2023	769.365,09 €
2024	1.145.992,03 €
2025	1.095.575,40 €
% aldakuntza 25-23	% 42,40
% aldakuntza 25-24	-% 4,40

Urtea	Hasitakoak	Ebatzitakoak	Deskontuarekin Ordaindutak	Ebatzitako gora jotzeko errekurtsuak
2023	1779	1532	1191	71
2024	2380	2115	1670	108
2025	2011	1988	1634	89



BAIMENAK / IKUS-ONETSIK

Bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko jarduna egiteko ezinbestekoa da jarduera horretarako ahalmena ematen duen baimena izatea. Agindu orokor gisa, garraio baimenak titularrak zerga egoitza daukan lekuan helbideratu behar dira.

Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua eta beste erregelamendu arau batzuk aldatzen dituen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretua 2019ko otsailaren 21ean indarrean jartzearekin, desagertu egin dira garraio baimenen titulartasuna egiaztatzen duten txartel fisikoak. Gaikuntza titulu bat indarrean dagoen egiaztatzeko, orain telematika bidez Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroa kontsultatu behar da (sarbide publikoko errolda bat) Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren web orrian.

Hona hemen 2023an, 2024an eta 2025an Arabako Lurralde Historikoan dauden estatu eremuko garraio baimenen mota eta kopurua:

SORTA		2023	2024	2025
MDL-N	Ibilgailu arinetan salgaiak eramateko garraio publikoa	468	565	543
MDLE-N	Ibilgailu arinetan salgaiak eramateko garraio publikoko enpresen txartela	297	348	309
MDP- N (arina)	Ibilgailu arinetan salgaiak eramateko garraio publikoa	232	251	223
MDP- N (astuna)	Salgaien publikoa ibilgailu astunetan	1.499	1.775	1.724
MDPE-N	Ibilgailu astunetan salgaiak eramateko garraio publikoko enpresen txartela	463	469	435
MPC-N	Salgai garraio pribatu osagarria	770	711	760
MPCE-N	Salgai garraio pribatu osagarriko enpresen txartela	292	277	296
OT	Garraio operadorea	62	64	61
VD-N	Bidaiariak, eskatu ahalakoa	408	370	387
VDE-N	Eskatu ahalako bidaiari garraio publikoko enpresen txartela	17	14	13
VPC-N	Bidaiari garraio pribatu osagarria	1	1	1
VPCE-N	Bidaiari garraio pribatu osagarriko enpresen txartela	1	1	1
VS-N	Osasun garraio publikoa	8	8	13
VSE-N	Osasun garraio publikoko enpresen txartela	2	2	3
VSPC-N	Osasun garraio pribatu osagarria	1	1	1
VSPCE-N	Osasun garraio pribatu osagarriko enpresen txartela	1	1	1
VT-N	Herri arteko garraio publikoa turismo-automobilez	234	234	234
VTC -N	Ibilgailuak gidariarekin alokatzea	104	123	161
Guztira		4.860	5.215	5.166

BAIMENEN ALTA ETA BAJA ESPEDIENTEAK

URTEA	A	B	BC	BCF	BCH	BF	C	CD	CG	CF	CFH	CG	CH	D	F	FG	G	GC	GF	H	HC	HCD	TOTAL	BAJAS
2023	335	14	8	1	13	3	75	8	0	1	1	1	52	6	8	0	2	1	1	2	0	0	532	62
2024	449	35	2	0	0	4	136	14	0	1	5	0	0	7	19	0	0	0	0	0	2	0	674	82
2025	514	5	5	9	0	5	107	11	0	2	10	0	9	11	24	0	0	0	0	0	0	0	712	74

*A (alta), *B (eskualdatzea), *C (ibilgailua aldatzea), *D (ezaugarriak aldatzea), *F (egoitza aldatzea), *G (birgaitzea), *H (etena kentzea)

IKUS-ONETSITAKO BAIMENAK MOTAREN ARABERA

URTEA	MDLE	MDLE	MDL	MDPE	MDP	MPCE	MPC	VDE	VPCE	VTC	VT	OT	TOTAL
2023	0	223	358	424	1.579	0	0	0	0	0	0	59	2.643
2024	0	1	1	1	1	218	621	0	0	65	0	0	908
2025	0	225	380	401	1.701	0	0	0	0	0	0	57	2.764
% aldaera 25-24													204,41%

IKUS-ONETSITAKO ENPRESAK JARDUERAREN ARABERA

JARDUERA	2023	2024	2025
ALOKAIRUA GIDARIAREKIN	0	7	0
GARRAIO OPERADOREA	59	0	57
SALGAI GARRAIO PRIBATUA	0	218	0
BIDAIARI GARRAIO PRIBATUA	0	0	0
SALGAI GARRAIO PUBLIKOA	424	1	401
SALGAI GARRAIO PUBLIKOA - ARINAK	223	1	225
BIDAIARI GARRAIO PUBLIKOA AUTOBUSEZ	0	0	0
BIDAIARI GARRAIO PUBLIKOA TURISMO-AUTOMOBILEZ	0	0	0
Guztira	706	227	683

ERABILERA BEREZIKO GARRAIO ERREGULARRA

URTEA	ESKOLAKO IKASLEAK			LANGILEAK + IFBS		
	ESPEDIENTE ZK.:	DRI kop.	BIDAIARIAK GUZTIRA	ESPEDIENTE ZK.:	DRI kop.	BIDAIARIAK GUZTIRA
2023	59	59	1.478	69	69	2.457
2024	189	146	3.853	80	77	2.120
2025	155	143	3.971	72	60	1.660
% ALDAERA 25-24	-17,99%	-2,05%	3,06%	-10,00%	-22,08%	-21,70%

Kontzeptu horietatik guztietatik bildutako diruaren datuak jarraian laburbiltzen dira:

KONTZEPTUA	2025EKO TASA	Kop 2023	Kop 2024	KOP 2025	% ALDAERA 25-24	DIRUBILK. 2023	DIRUBILK. 2024	DIRUBILKETA 2025	% ALDAERA 25-24
EB GABEKO BAIMENAK, BISAK ETA ZIURTAGIRI GIDARIAK	29,78	3.257	2.377	3.750	57,76%	93.247,91 €	68.053,51 €	111.685,90 €	64,11%
ERABILERA BEREZIKO BAIMENAK	33,74	132	233	219	-6,01%	4.294,64 €	7.558,52 €	7.382,56 €	-2,33%
NAHITAEZKO LIBURUEN HORNIDURA	10,31	115	120	167	39,17%	1.139,65 €	1.189,20 €	1.721,77 €	44,78%
Guztira		3.504	2.730	4.136	51,50%	98.682,20 €	76.801,23 €	120.790,23 €	57,28%



*Taula honek izapidetutako espedienteen aurreko taulen eta baimen/ikus-onetsien kobratze datuak ditu.


GIDARIEN GAITASUN AGIRIA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022ko abenduaren 14ko 2022/2561/EE Zuzentarauak, merkantziak edo bidaiariak errepidez garraiatzeko erabiltzen diren zenbait ibilgailutako gidarien hasierako kualifikazio eta etengabeko prestakuntzari buruzkoak, zenbait gidari profesionalentzako nahitaezko prestakuntzaren beharra ezarri zuen.

Azterketak garraio publikoko baimenak emateko eskumena daukaten erakundeek antolatzen dituzte, kasu honetan Arabako Foru Aldundiak. Gutxienez urtean sei aldiz egin beharko dira azterketak egiteko deialdiak, eta eskumena daukan erakundeak urtean behin deialdi guztiak argitaratu ahalko ditu, deialdi bakoitzari dagokion izen emate epea adieraziz.

Datuen laburpena jarraian jaso da:

KONTZEPTUA	2025EKO TASA	Kop. 2023	Kop. 2024	Kop. 2025	DIRUBILKETA 2023	DIRUBILKETA 2024	DIRUBILKETA 2025	% ALDAERA 25-24
AZTERKETA ESKUBIDEAK	23,89 €	399	709	775	9.165,03 €	16.285,73 €	27.233,68 €	67,22%
CAP TXARTELAK EMATEA	25,08 €	932	1008	1052	22.479,84 €	24.312,96 €	28.382,88 €	16,74%
GPA ZIURTAGIRIA EMATEA	41,37 €	0	2	4	0,00 €	79,56 €	165,48 €	107,99%
IKASTAROEN HOMOLOGAZIOA	125,80 €	0	0	1	0,00 €	0,00 €	125,80 €	-
ZENTROEN HOMOLOGAZIOA	377,25 €	0	0	0	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00%
IKASTAROEN HOMOLOGAZIOA BERRITZEA	125,80 €	0	0	0	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00%
SUKURTSALAK ETA GELA MUGIKORRAK EGIATZATZEA	188,62 €	1	3	0	181,37 €	544,11 €	0,00 €	0,00%
Guztira		1.332	1.722	1.832	31.826,24 €	41.222,36 €	55.907,84 €	35,63%



LANBIDE GAITASUNeko AGIRIA

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena onetsi zen errepide bidezko garraioaren arloko foru eguneratze eta parekatzearen inguruan (2022ko urtarrilaren 14ko ALHAOn argitaratua). Hitzarmen horren bidez, 2022az geroztik beste eskumen bat eskualdatu zaio Arabako Foru Aldundiari, garraio enpresen kudeatzaileen tituluak eskuratu, egiaztatu eta kontrolatzeari buruzkoa. Proba honen helburua da bidaiarien eta/edo salgaien garraio publikoko jarduerak egiteko gaitzea, estatuan eta nazioartean.

Eskumen hori gauzatzek berekin dakar salgaien garraioko kudeatzailearen eta bidaiarien garraioko kudeatzailearen tituluak lortzeko azterketak egiteari buruzko kudeaketa guztia, titulu gaitzaileak paper tinbredunean egitea eta, hala badagokio, tituluen kopiak egitea. Garraioko eta Logistikako Goi Mailako Teknikariaren Lanbide Heziketako titulua dutenei titulu horiek baliozkotzea ere sartzen da, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren II. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Eskumen hori gauzatzeari buruzko datuak honako hauek dira:

GARRAIO KUDEATZAILEAK	Kop. 2023	Kop. 2024	Kop. 2025	DIRUBILKETA 2023	DIRUBILKETA 2024	DIRUBILKETA 2025	% ALDAERA 25-24
Lanbide gaitasuneko azterketak. Salgai taldea	23	27	53	1.002,34 €	1.176,66 €	2.401,96 €	104%
Lanbide gaitasuneko azterketak. Bidaiari taldea	2	5	4	87,16 €	217,90 €	181,28 €	-17%
Lanbide Gaitasuneko Agirien kopiak.	0	4	3	0,00 €	87,16 €	67,98 €	-22,01%
Konpetentzia profesionalaren modalitatea baliozkotzea	1	0	3	21,79 €	0,00 €	67,98 €	
Guztira	26	36	63	1.111,29 €	1.481,72 €	2.719,20 €	84%

TAKOGRAFO DIGITALAREN TXARTELAK

Takografo digital edo kontrol gailua errepideko garraioan ari diren ibilgailuetan instalatu beharreko gailu bat da, eta ibilgailu horien martxari eta gidarien lan denborari buruzko datuak adierazi, erregistratu eta biltegitatzeko helburua daukate, automatikoki edo erdi automatikoki. Gailu horien ezaugarriak, funtzioak, ekoizpen baldintzak, funtzionamendua, homologazioa, instalazioa, egiaztatze lanak, kontrolak eta konponketak Europar Batasunaren araudian jasota daude.

Takografoaren txartela kontrol gailuarekin erabiltzen den txartel adimendun bat da. Takografoaren txartelek titularraren nortasuna jakinarazten diote kontrol gailuari, eta datuak biltegitatu eta bidaltzea ahalbidetzen dute; bost urterik behin indarraldia berritu behar da.

Arabako Foru Aldundiak takografo digitalaren txartelak eskuratzeko eskabideak izapidetzen ditu, Takografo digitalaren ezarpena arautzen duen apirilaren 25eko FOM/1190/2005 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat: “Eskatzaileak ohiko bizilekua duen tokian errepideko garraioaren arloan eskuduna den organoari zuzendu beharko zaizkio eskabideak”.

Takografo txartelak izapidetzeari buruzko datuak jarraian jaso dira:

TAKOGRAFOA									
KONTZEPTUA	2025EKO TASA	TXARTELAK 2023	TXARTELAK 2024	TXARTELAK 2025	% ALDAERA 25-24	DIRUBILKETA 2023	DIRUBILKETA 2024	DIRUBILKETA 2025	% ALDAERA 25-24
GIDARIA	64,72 €	788	691	674	-2,46%	49.037,24 €	43.000,93 €	43.621,28 €	1,44%
ENPRESA	64,72 €	169	143	136	-4,90%	10.516,87 €	8.898,89 €	8.801,92 €	-1,09%
ENTSEGU ZENTROA	64,72 €	24	24	20	-16,67%	1.493,52 €	1.493,52 €	1.294,40 €	-13,33%
KONTROL ERAKUNDEA	0,00 €	98	16	119	643,75%	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00%
Guztira		1.079	874	949	8,58%	61.047,63 €	53.393,34 €	53.717,60 €	0,60%

*Txartel kopuruan, izapidetutako guztiak jaso dira, doakoak direnak barne.

ARBITRAJE BATZORDEA

Garraioko Arbitraje Batzordeak Lurreko Garraioak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen bitartez sortu ziren, garraio kontratuan inplikaturako aldeak babestu eta defendatzeko tresna gisa. Besteak beste, lurreko garraio kontratuak eta errepideko garraioko jarduera lagungarri eta osagarrien kontratuak betetzeari lotuta sor daitezkeen merkataritza izaerako eztabaidak ebatzea du funtzioen artean, adostasunez, aldeek edo zilegizko interesa daukaten beste pertsona batzuek jakinarazten badizkiote.

Gure lurraldeari dagokionez, Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 4ko 50/1995 Foru Dekretu bidez sortu zen, eta Mugikortasun eta Bide Azpiegituren Sailari atxikita dago; autonomia funtzionalez eta erabateko independentziaz jokatzeko du. Aipaturako ekintzetarako eskumena garraioaren abiapuntu edo helmugaren arabera edota zerbitzua ematen duen enpresaren egoitzaren arabera da, eskatzailearen aukeran, salbu eta batzorde jakin baten menpean jartzea espresuki eta idatziz adostu bada. Kontsumitzaile edo erabiltzaile moduan badihardu, ohiko egoitza duen tokikoa ere aukeratu dezake.

Arbitraje laudoak epai edo erabaki judiziala ordeztuko du, eta gauza epaituaren ondorioak izango ditu.

Hona hemen 2025an izapidetutako kasuen laburpena:

URTEA	SALGAI GARRAIOKO KONTRATUAK				BIDAIARI GARRAIOKO KONTRATUAK			JARDUERA OSAGARRI ETA LAGUNGARRIAK	GUZTIRA ESKAERAK	LAUDOAK
	Garraio kostuak ez ordaintzea	Entregatzeko atzerapenak	Kalteak edo galerak	Beste arrazoi batzuk	Atzerapenak	Ekipajeak galtzea	Beste arrazoi batzuk			
2023	18	0	7	10	7	2	17	5	66	39
2024	10	2	11	13	10	1	23	2	72	53
2025	12	6	8	10	8	4	16	2	66	37
%variación 25-23	-33,33%	0,00%	14,29%	0,00%	14,29%	100,00%	-5,88%	-60,00%	0,00%	-5,13%
%variación 25-24	20,00%	200,00%	-27,27%	-23,08%	-20,00%	300,00%	-30,43%	0,00%	-8,33%	-30,19%

* Beste arrazoi batzuk: Ibilgailuen baldintzak, txartelak (errekarguak, deskontuak ez aplikatzea, e.a.), garraioa galtzea informazio desegokiagatik.


LABURPEN EKONOMIKOA

Hona hemen Mugikortasun eta Garraio Arloan 2025ko ekitaldian egindako jarduketaren diru sarrerak eta gastuak, laburbilduta:

GASTUAK

	2023	2024	2025	% ALDAKUNTZA
AR-01 ARABA ERDIALDEA (1)	1.650.429,32	1.710.274,64	1.819.386,24	% 6,38
AR-02 AIARA (1)	1.148.105,99	1.315.373,53	1.497.167,16	% 13,82
AR-03 ARABAKO ERRIOKA (1)	1.548.446,11	1.773.095,55	1.820.079,13	% 2,65
C01-MIRANDA-VITORIA/GASTEIZ-DURANGO (1)	601.653,47	641.885,09	574.519,77	-% 10,49
C02-BILBAO-LOGROÑO	28.076,95	19.395,79	100.060,53	% 415,89
C03-BILBAO-PAMPLONA		8.629,47	36.658,01	% 324,80
ESKUALDEKO GARRAIOA (2)	939.264,83	1.083.634,13	1.151.169,05	% 6,23
EZARPEN TEKNOLOGIKOA	273.452,46	410.871,46	1.357.595,43	% 230,42
DIRULAGUNTZAK	2.356.106,87	2.584.650,75	2.727.832,06	% 5,54
AP-68ko BIDESARI SOZIALA	937.839,84	1.042.026,72	1.090.656,57	% 4,67
AP-1eko BIDESARI SOZIALA	1.418.267,03	1.542.624,03	1.637.175,49	% 6,13
HITZARMENAK	1.328.446,89	269.091,66	266.475,04	-% 0,97
ARABAKO PT	20.000,00	20.000,00	20.000,00	% 0,00
GARRAIO ASTUNA AP-68	246.240,94	249.091,66	246.475,04	-% 1,05
BESTE HAINBAT (3)	552.015,89	493.459,34	912.863,74	% 84,99
GUZTIRA 2025	10.425.998,78	10.310.361,41	12.263.806,16	% 18,95

- (1) Gastuaren datua ez dator bat emakida bakoitzaren Datu ekonomikoaren laburpena tauletako defizitarekin; izan ere, arestian azaldutako gastuen datuak bat datoz kontzeptu bakoitzak 2025eko aurrekonturako agindutako ordainketekin eta emakida bakoitzaren defizita bat dator emakidaren defizit errealekin, kontuan hartu gabe emakidaren diru sarrerak 2025ean edo 2026an kontabilizatzen diren ekitaldia ixtean.
- (2) Memoriaren "Eskualdeko Garraio Zerbitzua" izeneko atalean, egungo eskualdeko garraio zerbitzuaren datuak (2019/07/01ean jarri zen abian) jaso eta batzen dira, bai eta Okina eta Artziniegako eremuetako jendea hurbiltzekoarenak ere.
- (3) **BESTE HAINBAT** - Kontzeptu hauengatik gastuak sartzen dira: Azterlanak eta txostenak, Txartel eta bestelako materialen hornidura, Baskulen eta markesinen mantentze lanak, BAT sistema atxikitzea, Informatika-sistemak mantentzea, Mugikortasun jasagarriko informazio-kanpainak, Ikuskapeneko prestakuntza-ikastaroak, Txirrindulari-Sarearen kuota, Bizikletaren estrategiaren esparruko jarduketak eta Arabako Mugikortasun Jasagarriaren II. Plana.



DIRU SARRERAK

	2023	2024	2025	ALDAKUNTZA
ISUNAK	769.365,09	1.145.992,03	1.095.575,40	-% 4,40
TASAK	192.667,36	172.898,65 €	233.134,87 €	% 34,84
<i>EB-TIK KANPOKO GIDARIEN BAIMENAK, IKUS-ONETSIK ETA ZIURTAGIRIAK</i>	93.247,91	68.053,51	111.685,90	% 64,11
<i>ERABILERA BEREZIKO BAIMENAK</i>	4.294,64	7.558,52	7.382,56	-% 2,33
<i>NAHITAEZKO LIBURUAK EMATEA</i>	1.139,65	1.189,20	1.721,77	% 44,78
<i>AZTERKETA ESKUBIDEAK (GPA)</i>	9.165,03	16.285,73	27.233,68	% 67,22
<i>GIDARIENTZAT GPA TXARTELAK EMATEA</i>	22.479,84	24.312,96	28.382,88	% 16,74
<i>GPA ZIURTAGIRIA EMATEA</i>	0,00	79,56	165,48	% 107,99
<i>PRESTAKUNTZA IKASTAROAK HOMOLOGATZEA (GPA)</i>	0,00	0,00	125,80	
<i>IKASTAROEN HOMOLOGAZIOA BERRITZEA</i>	181,37	544,11	0,00	-% 100,00
<i>TAKOGRAFO DIGITALAREN TXARTELA EMATEA</i>	61.047,63	53.393,34	53.717,60	% 0,61
<i>LANBIDE GAITASUNEN AGIRIA</i>	1.111,29	1.481,72	2.719,20	% 83,52
DIRULAGUNTZAK	1.519.614,24	1.483.674,19	865.114,55	-% 41,69
<i>EUSKO JAURLARITZA- NEXT GENERATION FUNTSAK</i>	0,00	180.000,00	0,00	-% 100,00
<i>EUSKO JAURLARITZA- 2025ko urtarilaren 28ko AKORDIOA</i>	655.856,64	647.818,19	327.928,32	-% 49,38
<i>MITMA- 1/2025 ERREGE LEGE-DEKRETUA</i>	863.757,60	655.856,00	537.186,23	-% 18,09
HERRI ARTEKO GARRAIO EMAKIDEN KANONA	90.000,00	130.000,00	130.000,00	% 0,00
KONTRATUA EZ BETETZEA	4.580,50	0,00 €	450,00	
Bildutakoa guztira	2.576.227,19	2.932.564,87	2.324.274,82	-% 20,74

